

Kultura

Yacambú seikoteak kontzertua eskainiko du Durangoko Ibaizabal parkean, uztailaren 10ean >13



Sortzaileen, herritarren eta elkarten Plateruena

‘Zilarberritzen’ gogoetaren ondorioak ezagutzera eman ditu Plateruenak. Kudeaketa parte-hartzailean oinarrituko dute aurrerantzean antzokiaren jarduna > 2

Elizaldeko kanpoko igerilekuak inauguratu dituzte Elorrion > 6

Atzo inauguratu zituzten Elizaldeko kanpoko igerilekuak. Ate irekien jardunaldia egin zuten, eta herritarrei doan sartzeko aukera eskaini zieten. Ikastetxe bakoitzeko ume batek ebaki zuen hasierako zinta. Ana Otadui alkatea pozik agertu zen inaugurazioan: “Egun garrantzitsua da, hainbat eta hainbat elorriar belaunaldiren ametsa errealitate bihurtu delako”. Bildu, aldiz, ez zen igerilekuen kontra agertu, baina kritikiko azaldu zen igerilekuen proiektua aurrera eramateko moduagaz.



GOIURIA
JATETXEA
ERRETEGIA

Abuztuan ere irekita
Euskal sukaldaritza tradizionala.
Arraina eta okela txingarretan.



Goiuria auzoa, 16 - 48215 lurreta (Bizkaia)
Tel.: 946 810 886 • www.asadorgoiuria.com

hitz
liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com



Aste honetan Hitzek gomendatzen dizu:

 <p>HELDUENTZAT INON EZ, INOIZ EZ Iban Zaldúa</p>	 <p>UME ETA GAZTEENTZAT TOM SAWYER-EN ABENTURAK Mark Twain</p>	 <p>MUSIKA soó Habib Koité</p>
--	--	--

lurreta > 8

Greba mugagabea hasi dute Arriaundi pastelgintzan diharduten beharginek

Zornotza > 4

Aparkaleku berrientzako ordenantza onartu du udalak

Otxandio > 9

Jaien ostean Plaza Nagusia eraberritzen hasiko dira

Elorrion > 6

Berrio-Otxoa eguna ospatuko dute gaur elorriarrek

Herririk herri**Platerueneko gestioak partaidetza oinarri**

Gogoeta prozesuaren ondorioak ezagutarazi dituzte

DURANGO Markel Onaindia Amaitu da Platerueneko *Zilarberritzen* gogoeta prozesua. Ikasturte honetan kafe antzoki euskaltzale eta herritarraren proiektua berridazteko dinami-ka parte-hartzailea garatu dute, eta, iritziak jasota, ondorioak atera dituzte. Garrantzitsue-na gestioagaz lotutakoa: Plateruenaren kudeaketa partaidet-za oinarrituko da. Kultur sortzaileek, herriko elkarteek eta proiektuagaz bat egiten duten herritarrek berba edukiko dute.

Prozesua EHUko Parte Har-tuz Sailekoek gidatu dute, eta eurek eman zuten eguaztenean ondorioen berri. Proiektuaren etenbako transmisioa beharrez-koa dela ondorioztatu dute, zer eta zertarako den kontatzea. Horretarako, komunikazio bi-deak ugaritzea proposatu dute, eta hartu-eman pertsonalari gar-rantzia ematea. Elkarreentzako

eta sortzaileentzako elkargune izan behar dela uste dute, eta sortzaileen kasuan, laguntzeko leku bat ere bai. Ikuspegi femi-nistagaz emakumeen partaide-tza bermatu gura dute. Bestalde, musikaz aparteko diziplinak in-tegratzea ere badago ondorioen artean. Beharrei erantzuteko, hiru lantalde sortuko dira.

Espazioa sortzaileen eta tal-deen beharretara egokitzeko, anfiteatroa eraldatuko dute. Udalgaz tratuan ibili dira, eta obrarako laguntza eskatu diote.

Nerea Iriarte Platerueneko presidentek eskerrak eman zizkien prozesuko partaide guz-tiei. *Zilarberritzea* apustu estra-tegikoa izan dela esan zuen, eta apustu horregaz lanean jarrai-tuko dutela. Ekonomikoki bide-ragarria izan arren, hasierako obratik 250.000 euroko zorra da-go, eta hori ordaintzeko ekarpe-nak batuko dituzte udazkenean.



Platerueneko gogoetaren emaitzen aurkezpena, eguaztenean.

TALDE BERRIA

Erakustekoak

Kultur programazioa lantzeko taldea. Eragileek, udalak eta bestelakoek antolatzen duten eskaintzaren arabera koordinatu beharko da.

TALDE BERRIA

Sorkuntza

Sortzaileen beharrian eta pro-posamenen arabera kudeatuko den taldea. Sortzaileen arteko sare finkoa eraikitzea izango da helburuetako bat.

TALDE BERRIA

Komunikazioa

Proiektuaren transmisioaz ar-duratuko da. Herritarrekin eta elkarteekin hartu-emanak lan-duko ditu, eta egitasmoen berri emango du.

Adinekoen egoera zelan hobetu aztertzen dabilta

Herriko adinekoen iritziak jasotzen ari dira

DURANGO Joseba Derteano Populazioaren zahartze oroko-rrak dakartzan erronkei modu komunean aurre egiteko OME-

ren (Osasunaren Mundu Era-kundea) nazioarteko sarean sar-tzea erabaki zuen aho batez iaz Durangoko udalbatzarrek. Ildo



Aitziber Irigoras alkatea eta diagnostikoan lanean dabilzan Durangoko adinekoak.

horretatik, herriko adinekoen bizitza kalitatea zelan hobetu jakiteko diagnostikoa egiten ari dira. Asteleheneko prentsaurre-koan azaldu zuten, orain arte 220 lagun eta elkarteren iritziak jaso dituzte inkesta bidez zein aurrez aurreko batzarretan. Durangoko Udalaren webgu-nean inkesta eskuragarri da-goela gogoratu zuten. Datozen hiru urteetarako ekintza plana aurkeztu gura dute 2014. urtea amaitzen denerako. Prozesu honetan Durangoko adinekoak dabilta azpimarratu zuten: "Lanketa honetan ez dabil kan-poko enpresa bat. Durangoko adinekoak dabilta, eta hori az-pimarratzekoa da", azaldu zuen Pedro Fernández de Larrinoa Deustuko Unibertsitateko dok-tore eta ekimeneko gidarietako batek.

Autobus zerbitzuari buruz, ikuspegi bateraturik ez

Batzarra amaituta, Bildu ezkor agertu da

DURANGO M.O.

Martitzenean, Durango-Gas-teiz autobus linearen inguruko batzarra egin zuten Durangon. Aitziber Irigoras alkateak deitu zuen (EAJ), eta Izurtza, Mañari, Otxandio eta Legutioko alkateak (Bildu) batu ziren. Gainera, Ara-bako Aldundiko Garraio Saileko zuzendaria eta Bizkaiko Garraio Saileko ahaldua ere bertaratu ziren; baita erabiltzaile bi ere. Erabiltzaileek eskatu lez, koor-dinazioaren bidez zerbitzua hobetzea zuten helburu. Baina, batzarra amaitu ostean, ez zuten ikuspegi bateraturik azaldu.

Durangoko Udalak bidalita-ko oharrean dio batzarra "gogo-betegarria" izan zela, Arabako ordezkaria alegazioak aztertzen dabilela, eta erabiltzaileen pro-posamenak batzeko konprometi-tu zela. Batzarregatik gustura azaldu da Irigoras.

Baina Bildu ezkor agertu da: "Badirudi Bizkaiko Foru Aldundiak ez duela esku hartze-rik nahi. Horrez gain, Arabako Foru Aldundia ere ez dago prest zerbitzua hobetzeko". Bilduren ustez, bien ardura da zerbitzua. Egoera ikusita, Garraio Aginta-ritzaren esku-hartzea eskatu du.

Laguntzaileak:

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

**anboto**
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa:
946 232 523
Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2014ko uztailaren 4a,
12. urtea - 552. alea**Zuzendaria:**

Jone Guenetxea Arrinda.

Administrazio burua:

Itziar Belar Zubizarreta.

Administrazioa:

Miren Abasolo Txabarri.

Publizitatea: Goretti Alonso

Armendia, Amaia Huarte Basabe,

Itxaso Altuna Marina.

Erredakzioa: Aitziber Basauri

Gandiaga, Itsaso Esteban Urriaga,

Joseba Derteano Bilbao,

Markel Onaindia Txabarri

eta Amaia Ugalde Begoña.

Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.**Zuzentzailea:**

Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Argazkilariak: Kepa Aginako, Zalao

Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 11.500 ale

Txakurren aurkako erasoak salatzen elkarretaratzera deitu dute biharko

Durandog elkarteak Tabiran deitu du elkarretaratzera, bihar, 12:00etan

DURANGO Jone Guenetxea Joan zen astean iltzez betetako saltxitxak jan zituzten bi txakurren egoerak ezinezona sortu du Durangon. Egoeraren aurrean, Durandog elkarteak txakurren aurkako erasoak salatzen elkarretaratzera deitu du biharko, 12:00etan, Tabiran. Durangoko Udalak prentsa ohar bidez azaldu duenez, bat egin du protesta ekitaldi horregaz.

Joan zen barikuan Durandog elkarteak eta Durangoko Udala batzartu egin ziren, txakurrei

buruzko ordenantzaren inguruan eztabaidatzeko. Eta txakurren kontrako erasoaren inguruan ere berba egin zuten, ezinbestean. Kaltetutako bi txakurren jabeek udalak babes ekonomikoa emango diela jakinarazi zuten txakurren jabeek batzarraren ostean.

Txakurren gaineko ordenantzaren inguruan ere "aurrerapausoak" eman dituztela azaldu dute Durandogeko kideek. Txakurren jabeak ez zeuden ados 1996ko ordenantzagaz, eta arau-

di berria sortzea eskatu zuten. Aldarrikapen hori kaleratzeko elkarretaratzea egin zuten orain hiru hilabete udaletxe aurrean. Udaltzarrak aho batez onartu zuen aldaketa egitea. Hala ere, Durandog elkarteak kideek behin-behineko araudi bat eskatu zuten, ordenantza berria sortu eta indarrean jarri bitartean. Baina udalak orain aste batzuk aurkeztutako proposamenagaz ez zuten bat egin elkarrekin. Txakurrak askatu ahal izateko udalak bost berdegune proposatu zituen Durangoko kanpoaldean, gaueko 22:00etatik goizeko 10:00etara.

Joan zen barikuko batzarrean, Durangoko berdeguneetan goizez 08:00etatik 11:00etara eta arratsaldean 20:00etatik 23:00etara txakurrak askatu ahal izatea izan zen udalaren proposamena. Durandogeko kideek proposamena ontzat eman zuten. Behin-behineko araudia irailera arte egongo da indarrean. Bitartean, udalak ordenantza berria idatzi eta udaltzarretik pasatu beharko du.

Euskara ikasleei zuzendutako bekak emango ditu udalak

DURANGO Amaia Ugalde Helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragin guran, euskaltegiak ikasleei matrikularen %90 ordainduko die Durangoko Udalak. PSE-EEk proposatu du udalean hobari hori ematea, eta sozialistek euren eman dute laguntzaren berri. Euskara ikasteko matrikularen

Euskaltegiak ikasleei matrikularen %90 ordainduko die Durangoko Udalak

%10 ordaindu ahaliko dute diru-sarrerarik ez daukaten pertsonak. Deskontuagaz, eskola orduko hamaika zentimo ordaindu beharko dute. Horrela onartu dute Durangoko Udalean. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten durangarrek ere hobariak dituzte iaiztik; udalak euskaltegi matrikularen %80 ordaintzen die.

UEUko ikastaroetan parte hartzeko diru-laguntza

MALLABIA J.G. Udako Euskal Unibertsitatean (UEU) ikastaroak egiten dituzten mallabitarrek udalaren diru-laguntza jasotzeko aukera dute. Eskabideak irailaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira, udaletxean.

Diru-laguntza eskatzeko Mallabian errolatua egon beharra dago, gutxienez ikastaroa hasi baino urtebete lehenago, eta diru-laguntza jaso arte. Era

Ikastaroan gutxieneko asistentzia %85ekoa izatea beharrezkoa dela azaldu du udalak

berean, ikastaroan gutxieneko asistentzia %85ekoa izatea beharrezkoa da. Langabezia edo soldata gabe ikasten dauden eskatzaileei matrikularen prezioaren erdia emango die udalak, eta gainerakoei matrikularen laurdena. Guztira, 400 euroko diru-atala aurreikusi du udalak.



Apirilean, Durandogeko udaletxe aurrean egindako elkarretaratzea.

Matrikula

uztailaren 9tik 16ra

Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa

Oñati Gestio Heziketa

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/ogh
info.enpresagintza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
gmh.mgép@mondragon.edu
943 73 97 65



Aparkaleku berrientzako ordenantza onartu dute

Ixer auzokoa astelehenetik zapatara zabalduko dute; Nafarroa zentrokoa egunero egongo da erabilgarri



Ixer auzoan, domeketako merkaturak egiten den tokian egingo dute aparkalekua.

ZORNOTZA Joseba Derteano Joan zen barikuko udalbatzarrean behin-behineko onarpena eman zioten aparkaleku publikoen erabilera arautzeko ordenantzari. EAJren eta PSEren botoekin onartu zuten. EH Bilduko zinegotziek bozketaren aurretik utzi zuten udalbatzarra, EAJgaz "suminduta". Batetik, uste dute EAJk bere egin dituela aparkaleku berrietako merituak: "Min ematen die gure ideiak eta esfortzuak publikoki onartzeak". Bestetik, alkatetzak herritarrekin antolatutako batzarretatik kanpora uzten dituela salatu du.

Doako hiru aparkaleku egin gura dituzte: Ixer auzoan, Nafarroa zentroan eta Betarraganen. Ixerreko aparkalekuan (146 leku) eta Nafarroa zentrokoan

(25 leku) txandakako sistema erabiliko dute. Ixerren kasuan, astelehenetik barikura (07:00etatik 22:00etara) eta zapatuetan (07:00etatik 15:00etara) egongo da zabalik. Zapatuetan, aparkalekuak hutsik geratu beharko du 15:00ak baino lehen, domeketako merkaturagatik. Gauetan autoa utzi ahalko da, baina atea itxita egongo da. Nafarroa zentrokoa, aldiz, egunero egongo da zabalik, baina gauez itxi egingo dute segurtasunagatik. Batean zein bestean, gehienez hiru orduz aparkatu ahalko da, eta, irten ondoren ezingo da berriro sartu ordu bi igaro arte. Txandakako sistema programa informatiko batek kudeatuko du; argazki baina aterako du autoa sartzean eta irtetean, denbora neurtzeko.

41.400 kilo materia organiko batu dituzte zortzi hilean

ZORNOTZA J.D.

Zortzi hilabete iraun du materia organikoaren birziklapena sustatzeko udalak martxan izan duen *Ongi etorri* kanpainak. Denbora horretan, herrigunean 40 kontainer marroi banatu dituzte, eta, aldi berean, herritarrei birziklapenaren gaineko informazioa helarazteko hainbat bide ireki dituzte. Kanpaina amaituta, orain arteko bidea baloratu dute, eta herritarrei birziklatzen jarraitzeko deia egin diete. Aurrerantzean materia organikoa birziklatzeko kita bulego teknikoan egongo da eskuragarri.

Zortzi hilabetean 41.400 kilo batu dituzte 40 edukiontzitan. Guztira, Zornotzako 1.019 familiak eta 87 saltokik bat egin

Guztira 1.019 familiak eta 87 komertzio bat egin dute materia organikoa birziklatzeko kanpainagaz

dute kanpainagaz. Ezarpenaren lehen fasean, azarotik otsaila bitarte, 22 edukiontzi jarri ziren hiru gune desberdinetan zerbitzua eskainiz eta 505 familiek bat egin zuten kanpainarekin; bigarrean, otsailetik ekainera, gaitortzeko 18ak kokatu ziren eta azken bi guneetara zabaldu zen zerbitzua. Orduz geroztik, beste 514 familia pasa dira informazio bulegotik materia organikoaren kita jasotzera. Baina aurrera begira ere, birziklapena sustatzen eta behar den tokietan kontainerrak jartzen jarraituko dute. David Latxagaren berbetan, auzoetan ere egon dira eskaerak, Euban esaterako, eta bosgarren edukiontzia bertara eramatea aztertuko dutela adierazi du.

Euskal mitologiagaz olgetan dabilta udalekuetan

Hurrengo barikuan akelarre bat irudikatuko dute

ATXONDO J.D.

Marixurrike aisialdi taldeak antolatutako udalekuak astelehen honetan hasi dira, eta uztailearen 24ra arte iraungo dute. Hilabete osorako zein aste baterako eman daiteke izena. Astelehenetik barikura herriko eskolan batzen dira, 09:30etik 13:30era, eta berta-

Automoziorako formakuntza zentroa egingo dute AICn

Gestamp enpresak zentro bi zabalduko ditu bertan

ZORNOTZA J.D.

Zornotzan dagoen Automotive Intelligence Centerren automoziorako formakuntza zentro bat egingo dutela jakinarazi zuen Jose Luis Bilbao Bizkaiko Foru Aldundiko ahaldu nagusiak eguaztenean, AICn emandako prentsaurrekoan. 15 milioi euro inbertituko dituzte, eta 2015. urte hasieran irekiko dute. Gestamp Formakuntza Tek-

nologikorako Zentro Globala eta Material Berrien Ezagutzarako Zentroa ezarriko ditu azpiegitura berrietan. Lehenengo zentroa estanzazioaren eta muntaia beroaren teknologian, eta karbono-zuntzaren eta bestelako material berrien azterketan oinarrituko da gehienbat; bigarrenaren helburua trokel konplexuen fabrikazioan adituak trebatzea da.



Gestampeko, Aldundiko eta AICko arduradunak azpiegitura berriko obretan.

Boroa jatetxeak irabazi du aurtengo pintxo txapelketa

Epaimahaiaren zein herritarren ustez, Boroakoa izan da Jan Alai txapelketako pintxorik onena

ZORNOTZA J.D.

Boroa jatetxea izan da aurtengo Jan Alai pintxo txapelketako protagonista nagusia. Epaimahaiaren zein herritarren ustez, Boroa jatetxeko pintxoak izan zen txapelketara aurkeztutako 56 hautagaien artean onena eta berritzaileena: Amanita eta trufa kristalezko arrautzan, habia kurruskariaren gainean. Sari bakoitzeko 1.000 euro eta txapela jaso zituzten domeka arratsaldean, Zelaieta zentroan egindako sari banaketa ekitaldian. Zerbitzaririk onenaren saria, al-

diz, Urtza tabernako Imanol Bazentzat izan zen. Antolatzaileen esanetan, aurtun 65.000 pintxo inguru saldu dira txapelketak iraun duen lau egunetan.

Hamar pintxo onenak

Jan Alai txapelketak hamar pintxorik onenen zerrenda osatzeko ere balio izan du: Boroa jatetxearen ostean, Gu Geu, Tomasa, El Cojo, Jauregibarria, Saltxa, Berezi, Propi, Aterpe eta Urtzako pintxoek osatzen dute hamar pintxorik onenen zerrenda.

Durango

I. EUSKAL SAGARDO EGUNA

UZTAILAREN 5EAN,
12:30 ETIK 15:00 ETARA

EUSKAL SAGARDOA
+
PINTXOIA

PARTE HARTZEN DUTEN TABERNAK:

- ZERO
- GURE KABIYA
- ANBOTO
- RUGBY
- MAITE
- ARKUPE
- POL-POL
- LURBI
- PLATERUENA
- KAFE ANTZOKIA
- MISARBE
- LEKU BERRI
- ALPINO
- UDABERRI
- TABIRAKO
- IGERILEKUA

1,10 €

* Produkturik bat bukatzen den arte

ANTOLATZAILEAK

torioak kontatu, eta eskulanak egingo dituzte. Asteon Sugar eta Anbotoko Mariren inguruan (sorgin itxurako madalenak eginda) jardun dute. Datorren aste egitaraua, berriz, lamien eta Akerbeltzen inguruko izango da. Horrela, aste bitartean pertsonaia bi horien inguruko mozorroak egingo dituzte, eta hurrengo barikuan akelarre bat irudikatuko dute eskolan.

Udalekuak dirauten artean irteerak ere egingo dituzte; batez ere Durangaldeko herrietatik ibiliko dira.

BIKOTEKIDEAK EDO BIKOTEKIDE OHIAK ERAGINDAKO INDARKERIA SEXISTA HARREMAN BATETIK IRTEN NAHI BADUZU, DEITU **DEITU!**

ANDEREA ELKARTEA

Zer eskaintzen du Andereak elkateak?

Babesa: Emakumea dagoen egoeraren eta planteatzen duen beharraren entzute aktiboa.

Orientazioa: Inguru hurbilagoan eta bere erkidegoan dauden zerbitzuen inguruko informazioa eta aholkua ematea. Eta deribatzea, beharrezkoa izango balitz.

Laguntza: Batzuetan, emakumeak, bizi duen egoeragatik, laguntza fisikoa behar du, bai lagundu diezaioketen zerbitzuen inguruko gestioak egiteko, bai informazioa eskuratzeko.



GURE TELEFONO
ZENBAKIA ZURE
KONTAKTU-ZERRENDARI
ERANTSI KODE HONEKIN

andereak
Emakumeenganako biolentziaren
aurkako plataforma

**BFA
DFB**
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Elizaldeko kanpoko igerilekuak martxan, inauguratu ostean

Atzo inauguratu zuten instalazioa, eta ate irekien jardunaldia egin zuten

ELORRIO **Markel Onaindia**
Azkenean errealitate bihurtu da Elizaldeko kanpoko igerilekuen proiektua. Udalean eztabai-

da eragin duen prozesu baten ostean, atzo inauguratu zuten instalazioa, eta ate irekien jardunaldia egin zuten, herritarrei

doan sartzeko aukera emanda. Ikastetxe bakoitzeko ume batek ebaki zuten hasierako zinta.

Ana Otadui alkatea (EAJ) pozik agertu zen atzoko inaugurazioan. "Egun garrantzitsua da, hainbat eta hainbat elorriar belaunaldiren ametsa errealitate bihurtu delako. Instalazio hauek disfrutatzeko aukera paregabea edukiko dugu, eta seguru nago elorriar guztion topagune izango direla". Herritik irten barik udaz gozatzeko aukera eman gura izan diete herritarrei. Igeri egin eta bainua hartzeko hiru leku ditu instalazioak: txikia, ertaina eta txirristak dauzkan beste bat. Dutzak eta taberna ere egokitu dituzte eremuan.

Horretaz gainera, herrian eduki lezakeen eragin ekonomiko ere badute helburu. Gaine-

ra, hogeit hamar lanpostu sortu direla nabarmendu du Otadui.

Bildu ez da igerilekuen kontra agertu, baina kritikoa izan da proiektua egiteko moduagaz: "Gobernu taldeak antzezlan atondu du, alde aurretik hartua zuen erabakia justifikatzeko". 1,2 milioi euroko proiektua finantzatzeko, maileguan sartzetaz gainera, etxe bi eta lursail bat saldu izana txarto ikusi du. Interes elektoralagatik presaka ibiltzea ere leporatu dio gobernu taldeari; belarra jartzeko 180.000 euro erabili direla, eta, ereinez gero, hori aurreztuko zatekeela ohartarazi du. Bestalde, Idoia Buruaga zinegotziak azaldu du joan zen eguaztenean ur barik edo presio barik egon zirela auzo batzuetan, igerilekuak betetzeko lanengatik, eta udaleko arduradunek ez zutela abisatu. Gainera, udalekuetakoak inaugurazioan behartuta egon zirela kritikatu du.

Edozelan ere, "denon dirua" erabili denez, igerilekuak aprobetxatzeko eta ondo pasatzeko deia egin du Bilduk.

22 ume dabilta parte hartzen aurtengo udalekuetan

MAÑARIA **M.O.**

Mañariko Udalak aurtengo antolatutako udalekuetan 22 ume eman dute izena. Joan zen astean hasi ziren parte hartzen, eta uztailearen 11ra arte gozatu ahalko dute umeek eskaintza horretaz. Hiru astetan banatuta, aste bakoitzean hamasei eta hamazazpi umeren bueltan dabil-

Umeek Mañaria hobeto ezagutzeko tailerrak egiten dihardute, esate baterako

tzala adierazi du Ainara Areitio zinegotziak: "Gure aurreikuspenak bete dira". Umeek Mañaria hobeto ezagutzeko tailerrak egiten dihardute, esate baterako.



Umeek txirristak erabili zituzten, atzo, igerilekuak probatzeko.

Ibarra auzotik gasolindegirako zubiaren obra adjudikatu dute

ELORRIO **M.O.**

Ibarra auzoa eta San Pio kaleko gasolindegia lotuko dituen zubi gutxi gorabehera hilabete barru hasiko dira eraikitzen. Udalak oharra bidali du obraren adjudikazioa egin dutela azaltzeko; beraz, martxan dago proiektuaren beste atal bat. 665.000 euroko aurrekontuagaz egin dute adjudikazioa, eta obrak hastera koan, enpresak zazpi hilabeteko epea edukiko du lanerako.

Zubiak gasolindegien alboko biribilgunean edukiko du irteera. Udal ordezkariak azaldu dutenez, proiektuagaz herri barruko trafikoa arintzea gura dute, eta bide-egitura berrantolatzeko ere bai. Arrazoi eta helburu horien artean, zubiaren proiektua "funtsezkoa" dela adierazi dute udal arduradunek.

Berrio-Otxoa eguna eta Azoka Ekologikoa asteburuan

ELORRIO **M.O.**

Berrio-Otxoa eguna ospatuko dute gaur, Elorrion, herriko patroia eta santuari omen egiteko. 12:00etako mezagaz hasiko dute eguneko egitaraua basilikan, eta ostean, 13:00etan, luntxa egongo da santuari eskainitako kalean. Arratsaldean, 18:30ean, Trikitilari Gazteen Txapelketa jokatu dute, eta 20:00etan kontzertua eskainiko dute Berrio-Otxoa orfeoia eta Gasteizko Lautada abesbatzak, Santa Ana kaperan.

Domekan, ostera, XVIII. Azoka Ekologikoaren txanda izango da. Hogeit hamar postu egongo dira, eta olio, haziak eta arrautzak dira nobedadeetako batzuk. Elorrixa elkarte ekologistak antolatzen du, udalaren, Marisatsaren eta EHNEren laguntzaz.

Pilotakadaz Pilotakada txapelketan final orekatua

Zuheros eta Beloki atxondarrek irabazi dute

ELORRIO **Joseba Derteano**

Joan zen domekan, Pilotakadaz Pilotakada txapelketako Bizkaiko finala jokatu zuten Elorrion, udaletxe ondoko frontoi irekian. Harmaillak lepo bete ziren azken partidua ikusteko. Final orekatuan, Angel Zuherosek eta Gotzon Belokik osatutako Atxon-

doko bikoteak 22-16 menderatu zuten Leioakoa. Zuheros izan zen laukotean onena, eta Belokik ondo eutsi zion partiduari.

Sakabanaketa salatzea izan da Etxeratek bultzatutako egitasmo honen helburua, eta lau final jokatu dituzte: Elorrion, Gasteizen, Tolosan eta Uhartan.



Gotzon Beloki eta Angel Zuheros irabazleak txapelagaz.

Kantxa Zati Batek eskerrak emango ditu gaurko ekitaldian

BERRIZ **Amaia Ugalde**

19:30ean ipini dute gaur hitzordua, Olakueta plazan, Kantxa Zati Bateko kideek, berriztarrei eskerrak eman, eta orain arteko bidearen balorazioa egiteko: "Helburua elkarlana ospatzea da, egindakoaz gozatzea eta etorkizuna marrazten hastea", adierazi dute taldeko kideek.

Ekitaldian Kantxa Zati Bat taldearen balantze ekonomikoaren berri emango dute. Gure Esku Dago ekimenaren diru kontuen berri ere emango dute. Eskerrak eman, eta hemendik aurrera lan egiteko taldeak osatzeko asmoa du Berrizko erabakitzeko eskubidearen aldeko taldeak. Ekitaldia Olakueta kaleko tabernek eskainitako luntxagaz amaituko dute. Berriztar guztiei egin diete hurreratzeko deia.

SERRATU, S.L

GALDARAGINTZA ETA ITXIERAK

25 ANIVERSARIO 1989-2014 URTEURRENA

gure bezeroen zerbitzura

Astola, 48 48220 ABADIÑO / Bizkaia
Tel.: 946 201 837 - Faxa: 946 818 635 - serratu@serratu.com

Goizane Azpiri Maurtua
Naturopata kolegiatua, 3.515 zk.

Eskuzko tekniketan eta psikofisikoetan aditua

Kontrakturen aurkako masajea
Drainatze linfatikoa
Osteopatia
Teknika kraneo-sakrala eta erraietako teknika
Estetika naturala: aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak

Etxez etxeko zerbitzua
(aurretiko hitzordua)

San Ignazio auzunea, 2 behea - Durango • Tel.: 675 706 599

GAILU ELEKTRONIKOAK vs. IRAKURKETA (eta III)

Umeek munduaren eta hezitzaile dituztenen artean ikasten dute. Konfiantza osoa duten pertsonen eskutik arakatzan hasten dira, euren ikasketei zentzua ematen dien pertsonen eskutik ikasten dute eta horrelakorik ezi egin dezake pantaila batek.

Irakurketarako esparru egoki bat sortzea, adibidez, irakurzaletasuna sustatzeko ezinbestean gogoan hartu beharreko funtsezko urratsa da. Irakurketarako toki lasai eta egokia izan beharra dago, irakurketa egokiak kontzentrazio handia behar baitu.

Irakurketa etengabe landu beharreko trebetasun intelektuala dela jakinda, gure irakurkaitasunean errotik hobekuntza nabarmenik izaterik nahi baldin badugu, irakurketa-metodologia bikaina geureganatu ondoren etsipen gabe irakurtzen jarraituz baino ez dogu irakurketa garatu eta bizkortuko.

Gure gizartean irakurketari baino baliabide teknologiko eta gailu elektronikoei arreta gehiago eskaintzen diegu. Guraso, ikasle, irakasle, ikastegiak eta oro har, herritarrek, baliabide ekonomiko askoz gehiago xahutzen dituzte informatika edota gailu elektronikoen desberdinak erosten liburuak erosi eta irakurtzen baino.

Irudiak erakartzen gaitu. Gizartea irudiaren itzalean bizi da. Irudiz janzten dizkigute inguru guztiak eta irudiaren beso indartsuetan eroriak gara aspaldi. Ez, ordea, irakurzaletasunarenetan.

Bizkaiko hainbat ikastetxe, arbel elektronikoa, plataforma digitalak, liburuen ordez ordenagailuak ezarri, ikasgaiak .pdf formatuetan eskaini, informazio gehigarriak [liburutegirik ez balego bezala] bilatu nahi izatean ohitura nagusitzat internetera jotzekoa hedatu, ikaskideen arteko harreman pertsonalak baliabide digitalez garatzen irakatsi eta gailu elektronikoen beharra suspertze asmoz, ekimen ugari bideratzen hasiak dira.

Aldiz, irakurketari, irakurzaletasunari eta irakurketaren ulermenaren benetan bideratzeko ezer gutxi egiten da. Informatikaren esparruak eta baliabide elektronikoen arrakasta gehiago eta, ikusten denez behintzat, zaletasun gehiago sortzen dute irakurketak eta irakurzaletasunak baino.

Berrikuntza teknologikoa gai da kultura besterenganatzean eta heziketa-sisteman ere ondo-

rio sakonik eragiteko. Guraso, ikasle eta irakasleek sakon ol-dotu beharko genuke berrikuntza teknologikoen eragindako entzunaren kulturak eta ikaragarrizko entzumen-estimulu kopuruak ikuspegi alfabetikoa-ri, eta bere euskarririk sendo eta esanguratsuen dugunari, [testua], betidanik izan duen bere garrantzian eragin dioten kalte nabarmenaz, ohiko izan duen nagusitasuna galdu arazi izateraino.

Oldozmen filosofikoaren esparruan arrazoiaren, ziurtasunaren, egia objektiboen eta unibertsalen erabateko nagusitasunari aurrea hartu zaio eta bere ordez zalantzaren, jakintza-oinarrien kritika eta jakintza-iturrien ugaritasunaren eremuak sortu eta hazi dira.

Gizakiak alde batetik irabazten irten du, askatasun gehiago eta autonomia handiagoa baititu. Baina bestetik, jarrerak zuzentzeko ezarritako kodeen eta jakintza-oinarrien gainbeheratetik eratorritako zurztasunaren eskuetan gelditu da.

Idazkeraren prozesu kognitiboak aztertzeari ekin dioten ikertzaileak irakurle aditu eta irakurle berriek erabilitako estrategiak ikertu dituzte. Ikerketon ondorioetako batzuen arabera, desberdintasunak ez dira mailaren ingurukoak bakarrik; egiturari dagozkionak ere azaltzen dira.

Ikertzaileek, irakurle adituek estrategia askoz korapilatsua-ko erabiltzen dituztela iragarri dute eta estrategia horietan planifikazio-, simulazio- eta ebaluazio-prozesuak erabateko garrantzia dute.

Irakurle adituek irakurgai bati buruzko ulermen, interpretazio eta ebaluazio bikaina izateko, ezinbestean, bi baldintza bete behar dituzte: Lehena, liburuen egileak bere idazlanean darabilen hiztegia (lexikoa, sintaktikoa, erretorikoa, topikoa, analitikoa eta gizartekoia) menperatu behar izatea; Bigarrena, informazio-tratamendu-

rako erabiltzen dituzten euren prozesuei buruzko teoria- eta eredu-sorta osoen jabe izateaz gainera, erreflexibotasunez aplikatzen dituzte. Irakurketak, besteak beste, irakurleak egilearen asmoen kontzientzia garbia izatea eskatzen du, eta, bestalde, egilearen asmo horiek testu-iguru jakin baten bakarrik dute osoko esanahia.

“**Gailu elektronikoen diru askoz gehiago xahutzen dugu liburuak erosi eta irakurtzen baino**

Idatzitakoa irakurtzea, beraz, irakurle bakoitzaren jardueraren erreflexibotik eratorritako norbere baitako elkarrizketari esker, egilearen kontzientziaren berreraikuntza-prozesu eta esperientzia liluragarria da.

“**Pantailen erabilerak idazketarako trebetasuna atzeratu edota mugatu egin dezake**

Egun, ume-jokorik gehienak pantaila baten beharra dute. Gero eta adinez gazteagoak diren umeak tablet edota telefono batekin, harrizteko adina ordu ematen dituzte, hainbatetan gurasoen onarpena edota onarpenik eza bitarte dela.

Haurren ongizateaz erabat arduratutako E.E.B.B. etako Gobernuz Kanpoko Common Sense Media Erakundeak egindako

azken txostenaren arabera, hiru umetatik batek (%38) hitz egiten ikasi aurretik gailu elektronikoen mugikorrek erabiltzen daki...

Zaletasun horrek ondorio latz eta gorriak dakartza. Horietako bi aipatzearen, aulkian, ikasleek esertzean izaten duten postura desegokiaz gain, hazi eta hizkuntza-garapenean atzerakuntza nabarmenik ere agertu daiteke. Are txarrago; adituen ustez, umeek gaur egun erabiltzen dituzten tablet-a, ordenagailu-a eta antzeko gailuek, idazteko trebetasuna atzeratu edota mugatu egin dezaketela adieraztera eman dute.

Umearen eta errealitatearen arteko tresna bihurtzen den pantaila baten aurrean, umeek, pantailak gauza guztiak egingo dituenaren itzaropenean, pasibo bihurtzen dira. Ondorioz, euren burmuina alfertu egiten da, eta euren jakite-egarriaren bultzagilea den harrizteko ahalmena deuseztatuta gelditzen da.

Ume bat pantaila aurrean dagoen bitartean, bere garapen egoki eta osorako lagungarri diren irakurketa, jolasa, naturan zehar ibili, lagunak egin edo zaintzailea duen pertsonarekin harreman txeratsua izatea bezalako “bikainagoak” diren beste ekintza batzuk galtzen ditu.

Pantailen erabilera lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan mugatu egin behar litzateke –ikastorduen %5a baino gutxiagora- beti ere helburu eta edukia izatera pedagogiko nabarmen baldin balute. Ikastetxea ez da jostaketarako tokia, heziketa jasotzeko baizik.

Ikasleek etxera itzultzean ariketa gutxiagorekin joan daitezten eta bestalde, jolaserako, irakurketarako eta gurasoekin luzaroago egon ahal izate helburuz, denboraren etekin handiagoa lortu behar da.

Gurasoak euren seme-alabekin denbora gehiago eman behar lukete, eta ondorioz, gabezia mota horrek seme-alaben beharrezanenganako harmen handiagorik garatu ez izanaren eragina du eta, horrek guztiak, elkarren arteko harremanetan era kaltegarrian eragiten du. Internet tresna ikaragarri bikaina da zer aurkitzen dabilen dakianarentzako edota zer aurkitzen ez dabilen dakia-

narentzako.

Aurrerapena ez da berrikuntzaren sinonimoa. Berrikuntza, aldiz, aurrerabidearen eta ilusioaren sinonimoa da. Aurrerapena bikaintasunaren bilaketa da; edertasuna errealitatearen mirariarekin bat egitea ahalbidetzen digun ingurua berreskuratzean datza.

Nagusiok, ume eta gazteei zer eskatzen diegun eta eskatzen diegun horren ordez zer ematen diegun geure buruari galdetu beharko genioke.

Ume eta gazteei nahikeria maila handiak jartzen dizkiegu. Bestalde, eskolan huts egiten duten ume kopuruaren eta hezkuntza arloko idealen artean hainbesteko alde agertzeko zein da umeekiko dugun irudikapena? Aipatutako guztiak erantzunik behar duten galderak egitera garamatza. Gaietako batzuk oso garrantzitsuak dira. Alde batetik, ume batek bere bizitzako lehen urteetan egin behar litzatekeen gauzei buruz arrazoiz kanpoko den nahikeria maila dago gure gizarte honetan.

Adibide gisa umeek eskolan zortzi ordutako egotaldia jasan behar izaten dute sei urte [batzuetan arinago] besterik ez dituztela eta aipatu ordu guzti horietan geldi, arretatsu eta nagusiak jarritako arauak aintzat hartu beharra izaten dute.

Jolasa bera ere ume eta eremu zehaztuetan egin behar izaten dute. Umeak, jolas-ekintzak arautzen dituzten nagusien parte hartzerik gabeko jolas askerako denborarik gabe izaten dira. Ume eta gazteen eskoletan egun dagoen etekin oso urria hezkuntza munduak duen gairik garrantzitsuena izatera iritsi da. Gure gizarte moderno honek dituen arazo handietako bi hiperikusmena eta gehiegizko ikuspena dira. Umeek jasaten dituzten estimuluen azkartasun ikaragarriak, prozesatu ahal izateko aukerarik gabe uzteaz gainera estimulu horiek iratzartzen dituzten umeenak eurenak diren gogoetak propioak prozesatzeko elementurik gabe ere uzten ditu.

Gorka Aurre
PRAKAGORRI
prakagorri@prakagorri.es

PRAKAGORRI IKASTARO TRINKOAK
UZTAILA & ABUZTUA MATRIKULA **UZTAILAREN 4ra arte**

ULERMEN JASOKO IRAKURKETA IKAS-METODOAK [11 – 15 URTE]

Uztailak 1 - Uztailak 15

Uztailak 16 - Uztailak 30

Uztailak 1 - Uztailak 30

Abuztuak 1 - Abuztuak 15

Uztailak 1 - Uztailak 15

Uztailak 16 - Uztailak 30

Uztailak 1 - Uztailak 30

Abuztuak 1 - Abuztuak 15

irakurri 4
ALDIZ ARINAGO

PRAKAGORRI
Reading skills
94 491 57 63
DURANGO
Barrenkalea, 20
prakagorri@prakagorri.es

EMAITZA HARRIGARRIAK !

McDonald's jatetxearen parean elkarretaratzea egin zuten barikuan

Bertako nekazaritza eta abeltzaintza indartuko dituen politika publikoak aldarrikatu zituen EHNEk



Hanburgesategia zabaldu zuten egunean egin zuten elkarretaratzea.

ABADIÑO Itsaso Esteban
Janari lasterra eskaintzen duen AEBetako McDonald's multinazionalak hanburgesategia zabaldu berri du Abadiñon, eta hainbat lagunek elkarretaratzea egin zuten saltokiaren parean, joan zen barikuan, EHNE Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak deituta. EHNEk adierazi duenez, jatetxearen irekiera salatzea eta "multinazionala nekazaritza industrialaren eta kalitate txarreko elikaduraren ordezkari nagusienetakoa" dela gogoratzea izan zen mobilizazio horren helburu nagusia.

Nekazarien sindikatuak azpimarratu duenez, "Abadiñoko Udala gure inguruan nozitzen ditugun egoera askoren eredu triste da: orain dela urte batzuk Erralde hiltzearen aldeko apustua egin zuen, eta orain alkateak berak zuzenean kudeatu du McDonald's eta Burger King herrira ekartzea".

Durungaldeko nekazaritza eta abeltzaintza indartuko dituzten politika publikoen beharra

aldarrikatu du EHNEk: "Elikagaiak bertan ekoiztea eta bertan kontsumitzea ahalbidetuko duten politikak martxan jartzea da egin daitekeen inbertsiorik onena: beharrezkoa da elikagaien transformaziorako estruktural indartzea, lurra zaindu eta berrerriaritu nahi duten gazteen esku uztea, eta bertako produktuen kontsumoa bultzatzea".

EHNE: "McDonald's kalitate txarreko elikaduraren ordezkari nagusienetakoa da"

Iazko urte amaieran ere manifestazioa egin zuten 500 bat lagunek McDonald's eta Burger King multinazionalen Abadiñoko jatetxeen irekieraren kontra. *Zabor jan eta kontraturik ez; ez Abadiñon, ez Durungaldean, ez inon* lelopean bat egin zuten hainbat sindikatu, gazte erakundeak eta merkatariek elkartek.

SEI HANKAKO MAHAIA

EIDER URIBE

Bildu



Durango-Gasteiz linea

2007. urtetik urteak pasatu dira, Durangotik Gasteizera doan autobus linearen hobekuntzak lortzeko asmoz, Izurtza, Mañaria eta Otxandio, Arabako beste udalerrri batzuekin batera, lanean hasi zirela. Urte horretan, Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburuarekin, Nuria López de Guereñuarekin, izandako bilera batean, esku hartu behar zuten erakundeak aldundiak zirela eta ez Jaurlaritza azaldu zuen. Orduetik hona hainbat izan dira Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin egindako bilerak. Betiere, udalen eta erabiltzaileen arteko koordinazioa egonik. Non egon da Durangoko Udala?

Erabiltzaileek azken urteetan egin duten lana goraiatzeko da. Azken asteetan, change.org plataforman sinadura biltzea abiarazi eta mozioak erregistratu dituzte udaletan, non alkateei eskatzen zitzaizen "herritar bezala ditugun eskubideak defendatzeko, eta Durango-Gasteiz lineako beste alkateekin batera zeresana duten erakundeen aurrean berauek defendatzeko". Aho batez onartuak izan ziren. EAJri ongietorria ematen diogu, gure hainbat saiakeraren ostean, hurbiltzearen eta batzaren aldeko pausoren bat eman duelako.

Astearteko bileraren ostean argi utzi ziguten Bizkaiko Foru Aldundiak ez duela esku hartzerik nahi. Orain, Euskadiko Garraio Agintaritzara joango gara, Bizkaiko eta Arabako foru aldundien koordinazioa eskatzeko asmoarekin.

Helburua argia da: kalitatezko eta erabiltzaileen beharrei egokitutako autobus zerbitzu bat lortzea. Alderdikeriak alde batera utzi, eta goazen herritarren beharrezko erantzuna ematera.

Udalak material ortopedikoa maileguan utziko die behar dutenei

ZALDIBAR I.E.

Diru-sarrera txikiak edo arazo ekonomikoak dauzkaten herritarrei laguntzeko helburuz, material ortopedikoa eta osasun arazoak dituztenentzako materiala erosi du Zaldibarko Udalak. Material horren mailegua arautzeko ordenantza bat onartu zuen udalbatzak urte hasieran. Beharrezkoak diren bileren bategiaren bidez, esaterako, ohe artikulatu bat, gurgil aulkia eta makuluak eskuratu ditu udalak, eta aldi baterako gaixotasunak zein kronikoak dauzkaten arazo gaingaitzen lagundu gura die.

Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira tresneria hori maileguan hartzeko eskariak, eta behar den moduan eta ezarritako epean bueltatzeko konpromisoa hartu beharko du eskatzaileak.

Greba mugabakoa hasi dute Arriaundi pastelgintzan

Gaur hasi dute greba; pastelgintzako lan kontratuak eteteko pausoa ematear da enpresa

IURRETA Amaia Ugalde

Arriaundi SL enpresak apirilean jakinarazi zien beharginen pastelgintza atala ixteko asmoa. Ekainaren 24an lan kontratuak amaitzeko erregulazio espedientea eskatu zuen enpresak, eta erabaki horren aurrean greba mugabakoa hasi dute gaur pastelgintzako langileek. LAB sindikatuaren arabera, "amaierara arte lanpostuen alde egiteko asmoa daukate". Okindegiko beharginak ere kexu dira, besteak beste, soldata murrizketen gatik.

Arlo bitan banatzen da Arriaundi SL: okintza eta pastelgintza. Enpresako langileek apirilean jakin zuten zuzendaritzaren asmoen berri. Pastelgintza atala ixteaz gainera, okindegiko langileei soldata %6 eta %25

arteak bajatzea ere aurreikusi zuten. Pastelgintzako langileak beste postu batzuetan kokatzeko asmoa ere azaldu zuten.

Okindegiko langileen ordezkari sindikalak CCOO -bi ordezkari- eta ELA -bat- sindikatuetakoak dira. Pastelgintzako ordezkaria LABekoa da. Azken sindikatu horrek eman du lan gatazkaren berri.

LABek azaldu duenez, maiztzean aholkulari sindikalekin batzarra egin zuten langileek, eta negoziazio mahai bakarra eratzea erabaki zuten: "langile guztiak mantentzea zen abiapuntua". Azken hileotan, okindegiko langileek soldata murrizketaren komunikazioa jaso dute. LABek kontatu duenez, CCOO eta ELAko ordezkariak enpresagaz adostu dute neurri hori.

Atzo Donien Atxa igota, Amatzako jaiak dituzte asteburuan

IURRETA A.U.

Atzo igo zuten Donien Atxa Amatzan, eta baita dantza saiorako azken entseguak ere. Gaur, San Martin eguna, meza eta luntxa izan dituzte. Bihar, tortilla txapelketa izango dute. 19:30ean auzoko trikitilariak kalejira hasiko dute, eta tortillak 20:30ean aurkeztuko dituzte. Afalostean bertsolarien txanda izango da. Urtero legez, Eneko Abasolo *Abarkas* arduratuko da bertsolari sorpresa ekartzeaz. Gero, erromeria egingo dute auzokoen artean.

Domekan, 11:00etako mezaren aurretik, kalejira egingo dute trikitilariak. Eguerdian, auzokideek dantza saioa eskainiko dute; dantza taldean ez dabilzan auzokideak ere animatzen dira urtero dantzan ikasi, eta jaietan saioa egitera. Herri bazkaria eta jokoak izango dituzte gero.

A. Urreta podologa

Amara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behea - 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 21406

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Urritasuna duten ume saharauiek aterpetxean emango dute uda

Iazko esperientzia onaren ostean, aurten hamar ume ekarri dituzte Rio de Oro-Durango ekimenagaz

IZURTZA Joseba Derteano Tindufeko (Aljeria) desertuan kokatutako errefuxiatuen kanpalekuan bizi diren hamar ume saharauik Izurtzako aterpetxean emango dute uda. Ume horiek urritasunak dituzte (Downen sindromea, autismoa eta buruko paralisia, esaterako). Ekainaren 26an etorri ziren, Rio de Oro-Durango ekimenaren barruan, eta abuztuaren 26an joango dira.

Iaz izan zen ekimenaren lehen aldia, eta “esperientzia pertsonal eta kolektibo atsegina izan zen umeentzat zein guretzat”, adierazi du Mikel del Arco antolatzaileetako batek. Horregatik erabaki dute ekimena errepikatzea. Iaz zortzi ume ekarri zituzten, eta aurten 7 eta 14 urte

arteko hamar etorri dira; batzuk iazko berak dira. Ekimena aurrera irten dadin 60 monitore eta boluntario arituko dira lanean. Del Arcok boluntario horien lana azpimarratu du: “Iaz, umeak hemen egon ziren hilabete bietan lan handia egin zuten, baina aurten aurretik ere lan handia egin dute antolaketan; finantziarioa lortzen, esaterako”. Durangoko Udalak eta Herria elkartearen laguntza eskertu dute.

Udan hainbat irteera egingo dituzte. Durangoko igerilekura, hondartzara, inguruko jaietara eta umeentzako antzerki ikuskitzuetara, adibidez. Era berean, aterpetxean berdegune bat daukate denborapasarako: txinboetan ibiltzeko eta futboleko jolas teko, besteak beste.



Monitoreen eta ume saharauen familia argazkia.

Jaien ostean hasiko dira plaza eraberritzen

Eusko Jaurlaritzatik 300.000 euroko diru-laguntza jaso du udalak Plaza Nagusia eraberritzeko

OTXANDIO J.D. Santamaña jaiak amaitzen direnean ekingo diote Plaza Nagusia eraberritzeko lehen faseari, udalak jakinarazi duenez. Erakundeek diru-laguntzen baitan zegoen proiektu hori aurrera eramatea. Azkenean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 300.000 eurogaz babestuko du proiektua.

Bizkaiko Foru Aldunditik, ordea, lanek ez dute diru-laguntzarik jasoko, nahiz eta, udal ordezkarien esanetan, “Kul-

tura Ondarearen Zerbitzuak egindako txosten batek Plaza Nagusiari balio historiko eta patrimonial paregabea aitortzen dion, eta lanak urgentziaz kotzat jotzen dituen”.

Udala lanak aurreratzen hasita dago, eta, dagoeneko, jasotze topografikoa eta arkeologia lanetarako beharrezkoa den georadar azterketa eginda daude. Santamañak amaitzen direnean hasiko dira arkeologia azterketa lanak, eta hilabete eta erdiz luzatuko dira.

Oñati bisitatuko dute jubilatuek martitzenean

Unibertsitatea eta parrokia ezagutuko dituzte

GARAI Markel Onaindia San Migel nagusien elkarteak irteera bat antolatu du datorren martitzenerako, hilaren 8rako. Oraingo honetan Oñati (Gipuzkoa) aukeratu du bisita egiteko, eta, betiko lez, kultura eta gastronomia izango dira ekimenaren oinarriak.

Jubilatuak goizeko 09:30ean irtengo dira Garaitik, eta Oñatira ailegatzean unibertsitatea ezagutuko dute bisita gidatu baten bidez. San Migel parrokia ere ikusiko dute ostean. Eguerdia heltzerako bazkaltzen joango dira, eta askotariko menua

edukiko dute dastatzeko: pernila, legatza eta tarta, adibidez

Bazkarian indarrak hartu ondoren, Arantzazura bisita egiteko asmoa daukate. Antolatzaileek azaldu dute sarritan egon izan direla bertan, baina elkarteko bazkide berriekin ere egin gura dute santutegira bisita.

Martitzeneko irteeran parte hartu gura dutenek 25 euro ordaindu beharko dute. Inskripzioa herriko tabernan egiten dabilta, eta, esan dutenez, domeka izango da izena emateko azken eguna.

> DURANGALDEA ASTEON

Salerosketak Be Euskaraz, hamaika

ZOKKETA > Durangoko saltokietan euskararen erabilera bultzatzeko, ITG taldeak bultzaturiko Salerosketak Be Euskaraz kanpainaren barruko hamai-kagarren zokketa egin zuten martitzenean. Sylke dendan emandako 170.083 zenbakia izan da saritua, eta Tabira Oinetakoak dendako 170.283 izan da ordeko zenbakia.

EHEk batzarrera deitu du

EUSKARA > EHEren *Udalak eta biok euskaraz* dinamikaren harira, tratua euskaraz izatea eskatu zioten udalari hainbat herritarrek. Lau hilabete pasa ondoren, udalak erantzuna eman die eskaera aurkeztu zutenei. Hori baloratzekeo batzarrera deitu du EHEk hilaren 10erako, 19:00etan, Pinondon.

Udako dantzaldiak Ezkurdiko plazan

DANTZALDIK > Antzinako dantzaldiak, *txitxarri*oak gogortzeko, udako dantzaldiak antolatu ditu Durangoko Udaleko Adinekoen Sailak. Ezkurdi plazan egingo dituzte saio horiek, 19:00etatik 21:00etara, uztaileko lau igandeetan. Eurria eginez gero, Merkatu plazara lekualdatuko dute dantzazaleen hitzordua.

Iritzia

Nork jartzen ditu saltxitxak orratzekin? Nork?

Txakurrak izaki bizidunak dira, gu bezala; bizi egin behar dute, jan, euren beharrian egin... Nik pentsatzen dut pertsona horiek saltxitxak jartzen dituztela, agian, txakurrek euren beharrian haien portalean egiten dituztelako. Arrazoi dut edo ez?

Baina txakurrek ez dute errua, jabeek baizik, jabeek jasotzen dituztelako txakurren beharriak. Eta pertsona horiek zer egiten dute? Ba txakurrekin ordaindu.

Animalia hauek, saltxitxa hauekin asko sufri dezakete, nik ez dut kasurik ezagutu edo ikusi, baina kontatu izan didate, eta kalte handia egin dezakete. Adibidez, txakurrak operatu behar izan dira. Eta hil ere egin daitezke, oso txikiak badira eta gorputz fina badute.

Nire ondorioa da pertsona hauek sentimendu gutxi erakusten dutela egindako gauza honekin, eta mesedez eskatzen dut tontakeria honekin amaitzeko, eta txakurrei lasai eta ondo bizitzen uzteko.

Uxue Unamunzaga Morato (Durango)



astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Berbaz

Neskutz Rodríguez Ormazabal | Podemos-Ahal Duguko kidea | Durango, 1980

“Sofatik altxatu, eta norberak zer edo zer egin dezake gauzak aldatzeko”

Europako hauteskunde kanpainan jardun zuen Rodríguez; Podemosek taldea sortu du Durangaldean



> **BERBAZ** Jone Guenetxea Europako Parlamenturako hauteskunderi begira jaio zen Podemos-Ahal Duguk bideari ekin dio Durangaldean. Maiztaren 25eko hauteskunderetan 1.625 boto jaso zituen eskualdean. Neskutz Rodríguez durangarrak Pablo Iglesiasen alderdian dihardu. Udal hauteskunderetara aurkeztuko ote dira? Oraindik ez dute erabakerik hartu.

Zer da Podemos-Ahal Dugu?
Jende arrunta politika egiten. Horixe da Podemos-Ahal Dugu. Sofatik altxatu, eta norberak zer edo zer egin dezake gauzak aldatzeko. Gurean oso garrantzitsua da ingurukoei zer garen azaldu, eta parte-hartzea bultzatzea.

Podemosek Europako hauteskunderetan izan duen arrakasta espero zenuten?
Nik neuk ez. Porra bat egin genuen hauteskunderen aurretik,

“**Gizarte mugimenduekin batu gura dugu zer hobetu daitekeen jakiteko**

eta bizpahiru ordezkari espero nituen asko jota. Bost eskuratu ditugu, eta sorpresa handia izan da denontzat.

Emaitzen balorazioa egingo zenuten dagoeneko. Zergatik uste duzu izan duela alderdi sortu berri batek horren harreara ona?
Jendea itzartu egin da. Kontua ez da bakarrik beste alderdi batzuetako jendea etorri izana. Abstentziotik ere botoak etorri zaizkigula esango nuke. Jendea nazkatuta dago politikagintzan gertatzen ari diren ustelkeria kasuekin. Beste herritar ba-

tzuek, aldiz, ez zuten inolako alternatibarik ikusten, eta beste alderdi batzuetatik etorri dira.

Zelan erabaki zenuen mugimendu honetan parte hartzea? Ez naiz sekula politikagintzan jardun. Iaz bihotzeko ebakuntza bat egin zidaten, eta hainbat arazo izan nituen. Bigarrenez ospitalean nengoela pentsatu nuen osasun publikorik ez balitz egongo, ez nintzatekeela han egongo. Dena pribatizatzen dabilta, eta hori ezin daitekeela izan pentsatu nuen.

Bizkai mailan zelan sortu zen zenuen alderdia?
Podemos urtarrilean sortu zen, baina Bilbon martxoan aurkeztu bat izango zela entzun nuen kasualitatez. Joan egin nintzen, eta izena eman nuen. Lau talde sortu ziren: Uribe Kosta, Ezker Meatzaldea, Bilbo eta Ibaizabal. Batez ere hauteskunderetarako koordinatzen hasi ginen. Lan

“**Jendea itzartu egin da. Nazkatuta dago gertatzen ari diren ustelkeria kasuekin**

oso gogorra izan zen, diru oso gutxi geneukalako. Kartelak egin, eta lau mitin eta hainbat hitzaldi eskaini genituen.

Durangaldean taldea sortzen diharduzue orain. Zelan diharduzue lehenengo urratsak ematen?
Hasiera gogorra da, oraindik ez dugulako antolaketa finkorik. Ekainaren 13an aurkeztu egin genuen Durangon. Joan zen egunean bigarren batzarra egin genuen, eta 30 lagun inguru batu ginen. Lantaldeak sortu ditugu dagoeneko. Alde batetik, dinamizazio taldea dugu, gizar-

te mugimenduekin hartu-emanetan jarri, eta zer behar izan ikusten dituzten ezagutzeko. Komunikazio taldea ere badugu, hedabideen arloan lan egiteko. Gainera, finantza taldea ere sortu dugu. Dena dela, ekainaren 14an estatu osoko taldeok batzarra izan genuen Madrilen, eta taldea zelan dinamizatu jakiteko pausoak azaldu zizkiguten. Erreminta batzuk eman zizkiguten taldea antolatzeko. Beraz, taldea subiranoa da, baina denon artean ere gauzak egin gura ditugu. Hurrengo batzarra uztailearen 9an izango da, liburutegiaren ondoko plazan.

Proiektuak zelako harrera izan du Durangaldean?
Jendea ilusioz etorri da. Beste batzuk, berriz, zalantza askogaz. 60 lagun inguru etorri ziren aurkezpena, eta 32 inguru geratu ginen osteko eztabidan. Hasieratik hasi ginen lanean. Eztabaida sortu, eta denon artean irtenbideak bilatzea da gure helburua.

Udal hauteskundeak izango ditugu datorren urtean. Aurkezteko asmorik baduzue?
Oraindik ez dakigu. Hori talde bakoitzak erabaki beharko du.

Durangaldeko politikagintzari zer deritzozu?
Nik Durangoko kasua ezagutzen dut. EAJ agintean dago 30 urte-edo. Ez ditu gauzak ondo egiten. Montevideo etorbidean obrak egin eta gero, berriro zabaldu zuen kalea, beste obra bat egiteko. Horrelakoetan ez da jakiten zertan joaten den dirua. Hiltegi bizi naiz, eta han behin-behineko kontainer bat dugu orain urte bitik. Hala ere, zergak berdinean kobratzen dizkigute. Eta beste auzo batzuetan ere gertatzen dira horrelako gauzak.

Zeintzuk dira Durangoko taldearen helburuak?
Momentuz, antolatzea. Horixe da gure lehentasuna. Gizarte mugimenduekin batu gura dugu, zer hobetu daitekeen eta zer egin daitekeen jakiteko.

Podemosen inguruan hainbat albiste entzuten ari gara. Chavisismoagaz ere lotu dute. Zelan hartzen dituzue kritika horiek?
Erdaraz esaten den moduan, *Ladran, luego cabalgamos*. Harrituta gaude gure kontrako hainbeste kritikagaz. Bost europarlamentari lortu ditugu, baina lehenengoak hamasei. Oraindik alde handia dago.

Irati Ortubia | Biolontxelista | Yacambú taldeko kidea eta musika irakaslea | Donostia, 1976

“*Hari instrumentuekin doinu dantzagarriagoak jo gura ditugu*”

Uztailearen 10ean, 20:00etan, Durangoko Ibaizabal parkean joko du seikoteak



Durangoko musika eskolaren inguruan sorturiko proiektua da Yacambú.

> MUSIKA Itsaso Esteban Donostiara da, baina hamalau urte daramatza Irati Ortubia biolontxelistak Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskolan irakasle. Ikasturte honetan beragaz Durangoko musika eskolan jardun diren Lerman Nieves eta Tomás Ruti lankideekin eta beste hiru musikari lagunekin sortu du Yacambú taldea. Uda Klean Bizi ekimenaren harira, uztailearen 10ean eskainiko dute lehenengo kontzertua.

Zelan aurkeztuko zenuke Yacambú taldea?

Lerman Nieves lankideak aspaldi zeukan pentsatua ukitu bereziko hari instrumentu talde bat osatzea: musika latinoan egingo zuena, hain zuzen. Musika klasikoari oso lotuak daude hari instrumentuak, eta musikatresna horiekin doinu dantzagarriagoak jo gura ditugu.

Zelan sortu da proiektua?

Aurten gauzatu ahal izan dugu Lermanen aspaldiko nahia; izan

ere, taldekideetako hiruk Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskolan lan egin dugu ikasturte honetan. Lerman eta biok irakasle gara bertan, eta Tomás Ruti ordezkapen bat egiten egon da Durangon. Elkarrekin geundenez, aprobetxatu egin dugu.

Nievesen perkusioagaz eta zure biolontxeloagaz batera diharduten musikariek zer jotzen dute?

Tomás Rutirena da taldeko lehenengo biolina. Orkestra gazte

batean elkarrekin ibilitakoak gara. Irungo orkestran elkarrekin askotan jo dugu Lermanek, Tomasek, Leire Hipolito bigarren biolinak eta nik. Aspalditik ezagutzen dugu elkar. Durangoko emanaldian, Iraide Sarria kanpoan dagoenez, Maider Lopezek joko du biola. Lerman batez ere perkusioaz arduratuko da, eta Jose Antonio Gómez ariko da kontrabaxuan.

Zelako kantak joko dituzue Durangoko emanaldian?

Errepertorioa elkarrekin erabaki dugu entseguetan, baina Lerman Nievesek moldaturikoak dira joko ditugun gehienak: musika latinoan. Errepertorio latinoan eta klasikoan daukagu, eta zabalik gaude edozein eratako emanaldietan parte hartzeko. Durangon jazzeko standarrak ere eskainiko ditugu, eta hori hari instrumentuekin entzutea ez da oso ohikoa.

“

Testuinguruaren arabera moldatuko dugu kontzertuetako errepertorioa”

Bestelako musika jotzeko aukera da Yacambú zuentzat?

Bestela ere denetarik jotzen dugu, baina egia da proiektu honen badaukala ukitu berezi bat. Zelanbait bada berria guretzat: oso aberasgarria da hemen hain ohikoak ez diren eritmoak jotzea. Lerman venezuelarra da, eta nabari da horren eragina

ere: oso argi dauka *danzón* edo *mambo* batek zelako soinua izan behar duen.

Klean aritzea gogoko duzue?

Bai, izan ere, entzulea beste jarrerara bategaz egoten da kaleko aire zabaleko kontzertuetan. Ez da areto batean bezala izaten, aretoetan ez tula egiteko ere beldur izaten gara eta [Barrez]. Klean jotzeko aproposena den errepertorioa iruditzen zaiguna aukeratu dugu. Testuinguruaren arabera moldatzen dugu kanten zerrenda. Taldearen itxurari dagokionez, bestalde, ez gara ohi bezala beltzez joango, eta egoteko modua informazioa izango da.



Irati Ortubiak aurkeztu du proiektua.

Lau jazzlari handik lagunduta ariko da Hasier Oleaga baterian, bihar

Gaur eta bihar kontzertuak, eta etzi dantza garaikidea, Musikaire jaialdian



‘Cantus Caterva II’ diskoko kantak joko dituzte Oleagak eta musikari laukoteak bihar, Elorrion.

EMANALDIAK

Carmen Souzaren ahotik, kultura lusofonoaren askotariko doinuek zabalduko dute gaur Elorrioko Musikairearen aurteneko eskaintza, eta Euskal Herriko sorkuntza izango da bihar eta etzi gozagai: jazz musika izango da biharko osagai nagusia, eta dantza garaikidea etzikoa.

Cantus Caterva II, kaleratu berri duen diskoa, aurkeztuko du Hasier Oleaga baterian-jotzaileak bihar, Elorrion. Gaztea izanagatik, Euskal Herriko jazz eszenan ezaguna da Oleaga, eta Mikel Laboa eta Gari kantari ezagunei lagundu izan die. Gaur egun, Ruper Ordorikari zuzenekoetan laguntzen dioten musikarrietako bat da, eta jazzaren arloan dozena bat proiektutan parte hartu du. Elorrion, Iñaki Salvador pianoan, Jon Piris

kontrabaxuan, Mikel Andueza saxoan eta Julen Izarra saxo tenorean ariko dira Oleagagaz.

Domekan, berriz, ordu laurden eta ordu erdi arteko dantza garaikideko piezak eskainiko dituzte Euskal Herriko hainbat sortzailek: Begoña Quiñonesen eta Mar Rodriguezen dantza konpainiak *Fetch* izeneko ikuskizuna eskainiko du; argazkigintza eta dantza baliatzen dituen Lasala konpainiak giza harremanen eta lotura afektiboari buruzko *Hooked(still)*; eta Ai Do Project taldeak *Dingzihu* izeneko obra. Lariz jauregian izango dira asteburu honetako kultur proposamenak.

Hurrengo asteburuan, ostera, hiru gizonezko kantariren musika izango da entzungai: Maliko, Portugalgo eta Euskal Herriko ahotsak eta doinuak.

Sei bikote ariko dira Trikitilari Gazteen Elorrioko I. Txapelketan

Pilotalekuko plazan joko dute Elorrioko trikiti txapelketako parte-hartzaileek

> MUSIKA Itsaso Esteban Gipuzkoako seina trikitilari eta panderojole ariko dira Elorriko antolatutako Trikitilari Gazteen I. Txapelketan. Gaur, 18:00etatik aurrera, plazako pilotalekuan egingo dute txapelketa horren lehenengo edizioa. Antolatzaileen arabera, eguraldi txarra egiten badu, Arriola antzokira aldatuko dute emanaldia.

Bikote bakoitzak hiru pieza eskainiko ditu txapelketaren barruan: trikitia, porrusalda, eta pot-pourria. Sariak banatzekoan, piezen originaltasuna, kide bien bat etortzea eta dantzagarritasuna hartuko ditu kontutan epaimahaiak, besteak beste. Txapelak eta 250 euroko ordainsaria jasoko dituzte lehenengo sarituek, 200 euroko saria bigarrenek, 150 eurokoa hirugarrenek eta 80 eurokoa gainontzeko hiru sailkatuek.

Alaitz Udalleta eta Aiala Etxabe, Julen Alonso eta Eneritz Aulestia, Josune Arakistain eta Alaitz Eskudero, Naiara Mancisor eta Naia Aguirregabiria, Larraitz Etxarte eta Olatz Leturiaga, eta Paul Eizmendi eta

Andrea Beobide bikoteak ariko dira Elorrioko I. Trikitilari Gazteen Txapelketan.

“Jaietan edo askotariko ekitaldietan trikiti doinua atzealdean entzutera ohituta gaude, baina ez dugu ezagutzen jotzen

eta kantatzen gazte hauek duten trebetasuna”, adierazi du antolakuntzan jardun den Juan Luis Elorzak. Azaldu duenez, ezagutza hori bultzatzeko helburuz antolatuko dute txapelketa, gutxinaka, Durangaldeko hainbat herritako tradizio trikitilari berreskuratzeko.

Oraindik txapelketan parte hartzeko gazteak izanagatik, badago Elorrioko musika eskolan trikitia ikasten duen 8-9 urteko elorriarrik. Gaizka Peña-fiel trikitilari lezamarra dute irakasle musikari gazte horiek.



Gipuzkoarrak dira Elorrioko txapelketan ariko diren sei bikoteak. Argazkia: 'www.txokomusikala.com'.

GEURE DURANGALDEA

ARANTZA ARRAZOLA
ETA MAIDER
LARRAÑAGA

San Agustin
kulturgunea



Bultzadatxoa sorkuntzari

Sorkuntzari bultzakadaxo bat ematea, horixe da hain zuzen ere Astarloak kalera-tzen duen bekaren helburu nagusia, durangarren artean arte sorkuntza bultzatzea eta babestea. Honezkero urtetxo batzuk igaro dira, lehenengo, Kultura Batzordetik, eta, geroago, Astarloaren bidez, udalak beka hau kaleratzen duela; hala ere, askorentzat ezezaguna da oraindik, eta pena galanta da hori, horregatik, gaurkoan bekaren aurkezpentxo labur bat egingo dugu.

-Sorkuntza eta ekoizpen artistikoa bultzatzea da helburua.

-Muga bakarra du beka: durangarra izatea. Taldean parte hartuz gero, gehienak Durangokoak izan behar dira.

-Dirua dago: 7.500 euro jasotzeko aukera daukazu zure proiektua mardula bada. Aurkeztutako proiektuen arabera, bat baino gehiago lagundu daiteke, partaideekin adostuta.

-Denbora dago: urte osoa daukazu proiektua gauzatzeko.

Hemendik aurrera zuk aukeratu, zer, nola eta zergatik egin nahi duzun. Berdin da zure adina zein den, berdin da beteranoa edo hasi berria zaren, berdin banaka edota taldean egin nahi duzun, berdin diziplina batean trebea bazara, edota zure ideiak plazaratzeko hainbat baliabide erabiltzen dituzun...

Oraindiano, besteak beste, bideo instalazioak, erakusketak, argazki bildumak, ilustrazioen kontakizunak, eta ikerketa lanak lagundu dira.

Eta onena: uda osoa daukazu proiektua prestatzeko, irailaren 5ean amaitzen baita aurkezteko epea! Sorkuntza oparoa izan dezazuela, uda on guztioi! Oinarriak udal web gunean.

‘Zoran eta golaren tigrekumeak’ filma emango dute eguaztenean

Uztailearen 9an, 22:30ean, Elorrioko Herriko plazan emango dute dokumentala

> ZINEMA

Sam Benstead-ek zuzenduriko *Zoran eta golaren tigrekumeak*

filmagaz itxiko dute ikasturte honetako Hilean Behin ziklo barruko dokumentalen ema-

naldia, Elorrion. Eguaztenean, uztailearen 9an, izango da film emanaldia, baina, ohi bezala



Hego Sudango lehenengo selekzioaren hastapenak erakusten ditu filmak.

Iturri kultur etxean barik, Herriko plazan. Erresuma Batuan ekoizturiko filma da *Zoran eta golaren tigrekumeak*, 2013. urtean egindakoa. Besteak beste, DocsBarcelona zinema jaialdian saritu dute filma, aurtan.

Hego Sudanen dago kokatua dokumentalean erakusten den istorioa: 50 urteko gerraren ostean, 2011. urtean independentzia lortu zuen Afrika ekialdeko herrialdean.

Zoran Djordjevic eskarmen-tu handiko futbol entrenatzailearen laguntzagaz herrialde horretako lehenengo selekzioa osatu dute, eta futbolaren mundu horretan lekua egin guran dabil Hego Sudan. Talde horren lehenengo urtea kontatzen du dokumentalak.

Hasierako emozioen eta euforiaren ostean, talde barruan sorturiko liskarrek, malariak eta lurraldeari erasotzen dion krisi ekonomikoak ere badute islarik dokumentalean.

San Agustin KULTUR GUNEAN

uda kalean bizi 2014

Banda La Colonia
Uztaileak 4, ostirala
20:00 - Ezkurdi

Pez Limbo Teatro Lana
Uztaileak 5, ostirala
20:00 - Musika Eskola Parkea

Uda honetan PLATERUEN PLATERAK

Bariku eta zapatu iluntzeetan

Razioak
Entsaladak
Etxeko pizzak
Kazolatxoak
Postreak

20:00etatik 23:00etara

Hemen agertu gura badozu deitu!

946 217 902

Gernika eta Markina txapelaren bila Elorrioko pilotaleku irekian

Herriartekoan iazko finala errepikatuko dute bihar Markinak eta Gernikak



> PILOTA Joseba Derteano Bihar, Bizkaiko Herriarteko Pilota Txapelketako finalak jokatu dituzte Elorrioko pilotaleku irekian. Goizean, 11:30ean, hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituzte Elorrioko eta Zornotzak. Arratsaldean, 17:30etik aurrera, Markina eta Gernika txapelaren bila lehiatuko dira.

Eguraldi ona egiten badu, finalak pilotaleku irekian jokatu dira; euria egiten badu edo euria iragarrita badago, pilotaleku estalian. Euskalmeten iragarpenen arabera, euria egin dezake. Antolatzaileek finalaren egunean bertan hartuko dute azken erabakia.

Pilotaleku batean edo bestean jokatu alde handia dago. Irekian pilota askoz gutxiago ibiltzen da; labur esanda, defentsa lanetarako erraztasunak eskaintzen ditu, baina pilotari bizi eta era-

sotzaileentzat ez da aproposa. Pilotaleku irekian harmaila beheriak ipini dituzte, eta 550 lagun esertzeko tokia dago.

Elkar ondo ezagutzen duten herri bi neurtuko dira. Iazko finalak protagonista berberak izan zituen, eta Gernika nagusitu zen. 2007tik hona Markina lau finaletara heldu da –aurten bosgarrena– eta hiru irabazi ditu; epealdi berean, Gernikak hiru final jokatu ditu –aurten goagaz lau– eta behin irabazi du. Herriartekoaren historian Markinak hiru txapel ditu (2008, 2010 eta 2012) eta Gernikak lau (1993, 1995, 1998 eta 2013).

Biharko partiduei begira, kadete mailan ez dago faboritorik. “Partidua atzean kargatzen saiatuko gara, eta, aukera dagoenean, aurrean errematatzen”, adierazi du Markinako entrenatzaile Peio Urionabarrenetxeak. Gazte mailan Gernikako Aitor

Etxebarria aurrelaria da izar nagusia. Beraz, markinarrak atzealdean hasiko dira berriro partidua lantzen. Baina Markinarren atzelaria, Mikel Urizar, maila handian dabil; agintzea lortzen badu, partidua estua izan daiteke. Senior mailako partiduan Gernika faboritotzat jo daitekeela uste du Gernikako entrenatzaile Arkaitz Castañaresek. Aitor Irustak eta Jon Bilbaok bikote indartsu eta orekatua osatzen dute.

Pilotaleku irekiari buruzko iritzia eskatuta, Urionabarrenetxeari “txarto” iruditzen zaio finalak hor jokatzeko: “Esperientzia berriak beste txapelketa batzuetan egin daitezke, baina herriartekoa txapelketa garrantzitsuegia da horretarako”. Castañaresek ustez ere, “ez da pilotaleku egokia”, baina “final politik” irtengo diren esperantza du.

Ibon Carretok urtebetez luzatu du kontratua Zornotzagaz

> SASKIBALOIA

Aurten Zilarrezko mailako Adecco ligako saskiratzaile nagusia izan den Ibon Carretok Zornotza Saskibaloitza Taldean jarraituko du datorren denboraldian. Alde bien arteko adostasunagaz, hegal-pibot durangarraren kontratua urtebetez luzatu dute. Beraz, Zornotzan jarraituko du 2014-15 denboraldia amaitu arte gutxienez.

Hurrengo bosgarren denboraldia izango du Zornotzan. Orain arte, 100 partidutik gora jokatu ditu, eta taldeko jokalaririk balioetsuenetakoa da. Mikel Garitaonandia entrenatzailea “oso pozik” agertu da albisteagaz: “Ligako jokalaririk onenetakoa da, eta oso garrantzitsua da gure taldean”.

Caldereria Ederkalde izan da onena areto futbol maratoian

> ARETO FUTBOLA

Zaldibarko Zaldia futbol klubak antolatutako areto futbol maratoiak 21 talde batu zituen joan zen asteburuan. Zaldibarko Caldereria Ederkalde taldeak irabazi zuen torneoak, finalean Ermuko Tottenham taldea menderatuta. Elorrioko Estropeadiños taldea geratu zen hirugarren, Parra Taberna talde herrikideari irabazi ostean. Herriko talderik onenaren saria Sorginek irabazi zuen.

Maratoiko jokalaririk onenak ere saritu zituzten sari banaketan. David Olmo izan zen torneo osoan golik gutxien jaso zuen atezaina, eta Alex Santiago golik gehien sartu zuena. Jokalaririk balioetsuenaren saria Arkaitz Rodriguezentzat izan zen.

ADITUAREN TXOKOA



Kepa Arroitauregi

Pilota teknikaria

Gazi-goza

Denboraldia amaitu dela-eta, garaiok beti izaten dira balorazioak egitekoak. Berez pilotak ez du denboraldi bukaerarik, udan neguan baino gehiago jokatzen baita kasik.

Halere, atzera begiradaxoa botata, nire aburuz, denboraldia gazi-goza izan da aurten gure inguruko izarrentzat. Goza maila ona, oso ona eman dutelako, bai; baina gazia lorpen garrantzitsurik lortu ez dutelako.

Pablito, Ibai Zabala eta Andoni Aretxabaleta pilotariek ari naiz, noski. Lehenak lesiotik sendatu dela erakutsi du, bai, baina zalantza bat ere nabarmen geratu da bere ibileraren ostean: berreskuratuko ote du orain urtebeteko jokorik berriz? Ibai Zabalak, berriz, denboraldi oso ona egin du, baina errematea falta, Beotibarkoa. Eta markinarra bikain, baina bera ere bukatu ezinda.

Amateurren lana ere aipatu gura dut. Bihar bertan, Elorrion, Markinak iaz lortu ez zuen herriarteko txapelketa eskuratu nahi baitu, etxekoek, ostera, podiuma zapaldu. Itsaso Pradera mallabitarra Euskal Herriko txapeldun geratu da, gure trinketlariak (Uriarte, Antxia, Gonzalez, Aspuru...) jokamoldeko maila gorenean aritu dira, eta titulu ugari pilatu dituzte (Bizkaiko txapelak, Euskal Herriko liga, GRAVN...).

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiot ANBOTOrin nire idazteko grinari tartetxoa eskaintzeagatik! Udaz gozatu!

Olaberriak eta Ramirezek urrezko dominak Espainiako Txapelketan

Bizkaia-Durangon dabilzan txirrindulariek bost domina irabazi zituzten

> TXIRRINDULARITZA

Joan zen astean, Ponferradan (Gaztela eta Leon, Espainia) lehiatutako Espainiako txapelketak emankorrak izan ziren Bizkaia-Durango taldearentzat. Guztira, bost domina irabazi zituen: urrezko bi, zilarrezko bat eta brontzezko bi.

Bizkaia-Durango Leire Olaberria gipuzkoarrak urrezko domina irabazi zuen erlojupekoan. Anna Ramirez hirugarren sailkatu zen 42 segundora. Ramirez Bizkaia-Durango taldekoa da, baina Kataluniako selekzioagaz aritu zen. Errepidean podiumeko lehen hiru postuak

bete zituzten Bizkaia-Durango ziklistek. Anna Ramirezek irabazi zuen lasterketa, eta bigarren eta hirugarren tokietan sailkatu ziren Irene San Sebastián eta Leire Olaberria.

Gaur hasi eta uztailearen 14ra bitartean Italiako Giroa lehiatuko du Bizkaia-Durango.



Anna Ramirez erdian, Irene San Sebastian eta Leire Olaberriagaz batera.

Ezindu fisikoen Bizkaiko Bira Elorrion amaituko da, domekan

Guztira 120 txirrindulari batuko dira, eta lau modalitateetan jardungo dute



Tandema da Bizkaiko Birako modalitateetako bat; iazko ekitaldiko irudia. Saiatu fundazioa.

> TXIRRINDUALRITZA J.D.

Saiatuz fundazioak ezintasun fisikoa duten pertsonen kirola egiteko bideak irekitzea du helburu. Txirrindularitzaren esparruan Bizkaiko Paracycling Bi-

ra antolatzen du urtero; aurtengo ekitaldia asteburuan egingo dute, eta domekako azken etapa Elorrion hasi eta amaituko da. Elorrioko Udala da lasterketako babesleeta bat.

Urterik urtera gero eta ezagunago bihurtzen dabil Bizkaiko Paracycling Bira. Esaterako, iaz nazioarteko hogeitatu estatutatik eta Espainiako hamar erkidegotatik etorritako 120 ziklista batu-

zitu. Munduko espezialistarik onenak etorri ziren. Aurtun mailari eutsiko diote, eta, gainera, UCiren nazioarteko egutegian sartu dute; ondorioz, ranking orokorrerako puntuak egongo dira jokoan. Lau modalitateetan hartu daiteke parte: ohiko bizikletan, tandemean, trizikloan eta esku bizikletan. Era berean, modalitate bakoitzean ere hainbat maila daude.

Zapatuan lasterketa bi lehiatuko dituzte: Mungian (Bizkaia), goizean (20 km-ko zirkuitua), eta Gallartan (Bizkaia), arratsaldean (6 km). Elorriokoa Birako azken etapa izango da. Domekan, 09:45ean irtengo dira tandem modalitatekoak Elizburu kaletik, eta 10:15ean bizikletakoen txanda izango da. Modalitate bi horietan erlojuaren kontra ibiliko dira. Ondoren, 11:30ean eta 12:45ean esku bizikleta eta triziklo modalitatekoak irtengo dira: errepidean arituko dira, eta ez erlojuaren aurka.

Ibilbidea zortzi kilometroko zirkuitu batek osatuko du. San Agustineko biribilguneraino joango dira; han buelta hartu, industriagunetik sartu-irtena egin, eta San Fausto kaletik berriro Elizburura itzuliko dira. Modalitatearen arabera bi edo hiru bider osatuko dute zirkuitua.

Durango Kirol Taldea bigarren, mendi proben txapelketan

> KORRIKA J.D.


Joan zen domekan Espainiako Mendiko Lasterketen Txapelketa jokatu zuten Cercedillan (Madril, Espainia), eta Durango Kirol Taldeak talde indartsua eta zabala duela erakutsi zuen, taldekako sailkapenean bigarren amaituta; Imanol Goñik eta Ekaitz Kortazarrek ezin izan zuten joan, baina Dabid Garcia, Oier Ariznabarretak eta Aitor Astorkiak osatutako hirukoak lan bikaina egin zuten.

Hamabi kilometro eta 700 metroko desnibel positiboa zituena lasterketan laugarren amaitu zuen Garcia (53.21), zortzigarren Ariznabarretak (55.25) eta 31. Astorkiak (1.01.54). Hiruren denborak batuta, Sabadell taldeak bakarrik gainditu zituen. Ariznabarreta minez heldu zen helmugara, eroriko baten ondorioz: "Bost kilometroren faltan erori egin nintzen, jaitsiera batean; zaintiratu egin nuen, eta gorputzean hainbat zauri ere bai. Une batean ere ez zitzaidan okurritu lasterketa utzi, eta lortu handi hori hondatzea".

MATRIKULA ZAITEZ **MGEP**

Uztailearen 9tik 16ra

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP



Mekatronika Industrial


Robotaren muntaiaz eta mantenketaz arduratzen dira

Fabrikazio Mekanikoko Produzioen Programazioa

Robotaren atalak eta piezak fabrikatzen dituzte

Sistema elektrotekniko eta automatizatuak

Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoaz eta energiaren hornizioaz arduratzen dira



www.mondragon.edu/gmhz

EDERTASUN GIDA



Ana Camarero.

XXI. mendeko esmalteak

Zelakoa da gaur aurkeztuko diguzun XXI. mendeko esmaltea?

Esmalte berezia da, gelagaz nahastuta dagoelako, eta UVA izpien lanpara batez sikatzen delako.

Zelako estiloak aurki ditzakegu?

Estiloei dagokienez, manikura frantsesa eta udako kolore berrien artean aukeratu ahal da, eta eskuetan zein oinetan ematea posible da.

Zer abantaila dauzka esmalte berri horrek?

Lehenik eta behin, iraupena: aste bi irauten du. Gainera, distira lehen egunetik azken egunera arte mantentzen du, hondartzako hareagaz ere ez du indarrrik galtzen. Eman ostean, segituan sikatzen da. Eta gauza garrantzizkoenetako bat da ez dituela azazkalak kaltetzen.



ILE-APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-18 • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak eta aholkularitza

udako ordutegia:
uztailean
goiz eta arratzaldez,
abuztuan
lanaldi trinkoa

Goienkalea, 16-1.esk • 48200 Durango
Tel.: 946 817 380 • Mug.: 639 375 474



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ISD
Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 500€ hileko.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- MONTEBIDEO: Apartamentua. Logela 2, komuna, sukaldea eta egongela. Erdi berria.
- ARKOTXA: 4 logela, komuna, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta ganbara.
- ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen. 1 eta 2 logelakoak. Trastelkuarekin. 140.000€-tik aurrera.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, 2 komun eta egongela. Garajea eta ganbara.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizteko. Inguru onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta pilotalekua.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarrekoko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

ATXONDO

- Logela 2, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trastelekua.

LURSAILAK SALGAI

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta-arbolekin.

OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. Lurzati 2, bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

DURANGO

- Adosatua. Guztiz jantzia. Erdi berria estreinatzeke.

BERRIZ

- MURGOITIO kokatuta dagoen baserria salgai. Nekazalturismo edo landa etxe izateko aproposa. Ikuspegi politik.

- EITUA: 5 hektarea dituen baserria. Familia biko etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

ETXEBARRIA

- Iturrieta. 5 hektareako baserria.

URRUTXUA

- Baserria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

TXALETAK

- DURANGO-ERRETENTXU: Salgai. Adosatua, etxebizitza bakarrekokoak eta bikoak.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, logela 2 eta komun 2.
- ANTSO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, logela 2 eta komun.
- ARKOTZA: 4 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Trastelekua.
- ARTEKALEA: Logela, sukalde-jangela eta komuna. Garajea eta trastelekua.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Ganbara. Trastelekua.
- ASTOLA BIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta ganbara.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza 2. Garajea aukeran eta ganbara.
- ERRETENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Ganbara.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- IBAIZABAL AUZUNEA: Logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garajea.
- JUAN ITZIARKO AUZUNEA: Logela 2, sukaldea, egongela, komun 2 eta lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KOMENTUKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua. Ganbara.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: Logela 2, sukaldea, egongela eta komuna.
- MURUETATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- MURUETATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- OLLERIA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Jantzia. Garaje itxia 2 kotxerentzako eta trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.**

ETXEBIZITZAK SALGAI

IURRETA



- Bakixa auzoa. 6.800 m2-ko lursaila. Bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Eguzkitsua. **200.000€** (prezio negoziagarria).

EUBA




- Arkotza auzoa. 3.500 m2-ko lursail lau ederra inguru zoragarri batean. Inguruan beste baserri eta txalet batzuk ditu. Eremu zabala, familiabakarrekoko etxebizitza eraikitzeko baimenarekin. **179.000€** (prezio negoziagarria).

IZURTZA



- 1.000 m2-ko lursaila etxebizitza familiabakarra eraikitzeko. **100.000€**.

IZURTZA



- Berritzeko dagoen baserria salgai. 120 m2-ko solairu bi, eta 80 m2-ko etxabe estalia. 450 m2-ko ortua. Teilatu berria. **90.000€**.

BERRIZ



- Bi solairutan banatutako etxebizitza: 3 logela, bainugela 2, galeria zoragarria, guztiz hornitutako sukaldea jangelarekin, egongela tximiniarekin. 1.100 m2-ko lursaila fruta-arbolekin. **318.000€** (prezio negoziagarria).

IURRETA



- Bakixa auzoa. 138 m2-ko baserria salgai. Solairu bi dauzka berritzeko. 800 m2-ko lursaila. Prezio interesgarria: **149.000€** (prezio negoziagarria).

www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- OIÑITURRI. EZKURDI: 140 m2. 4 logela, komun 2, egongela, sukaldea eta esekitokia. Ganbara. Garajea eta trastelekua. Eguzkitsua. Solariumarekin.
- TXALETA. 590 m2 eta 300 m2-ko lursailarekin. 300.000€.
- MARTXOAREN 8KO KALEA: 3 logela, komuna, egongela, sukaldea eta esekitokia. Terraza. Ganbara. Garajea. 236.000€.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komun 2 eta egongela. Ganbara eta garajea. Balkoia. Orain 24.000€ gutxiago.
- ABADIÑO. MUNTZARATZ: Logela 2 eta komun 2. Ganbara eta garajea. 142.000€.
- ABADIÑO. MUNTZARATZ: 3 logela, komun 2, sukaldea eta jangela terrazarekin. Trastelekua eta garaje itxia.
- IURRETA: Logela 2, komuna eta egongela. Terraza. Guztiz berriztua. 110.000€.
- IURRETA: Erdigunean. 1. solairua. 3 logela eta komuna. Bizitzaren sartzeko moduan. 93.000€.
- KOMENTUKALEA: Logela 2, komuna eta egongela. Terraza. Igogailua. 150.000€.
- LANDAKO: Apartamentua. Trastelekua eta garajea. 140.000€.
- MONAGOTORRE: 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea. Balkoia. Ganbara eta garajea. 290.000€.
- DURANGO. EZKI: (Duplexa) Logela 2. Bizitzaren sartzeko moduan. Lorategiarekin. 185.000€.
- MATIENA: 3 logela, komuna eta egongela-sukaldea. Guztiz berriztua. 135.000€.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komun 2, egongela handia eta sukaldea. Balkoia. Garajea. 266.000€.
- ASTEPE: Etxebizitza altua. 3 logela, komun 2 eta sukaldea esekitokiarekin. Terrazak. Trastelekua eta garajea.
- ARAMOTZ: 85 m2. 4 logela, sukaldea eta egongela. Eguzkitsua. 126.000€.
- MIKELDI: 3 logela, komun 2, egongela handia eta terraza 2. Berogailua eta igogailua. Ganbara. 186.000€.
- ARTEKALEA: 85 m2. Logela 2 eta komuna. Berriztua. 140.000€.
- FRANTZISKO IBARRA: 12 urte dituen etxebizitza. Logela 2, komuna, sukaldea eta egongela handia. Ganbara eta garajea. 235.000€.
- MONAGOTORRE: 70 m2. 3 logela, egongela eta sukaldea. Terraza. Eguzkitsua.
- IURRETA (Dantzari): 80 m2. 3 logela eta egongela. Berogailua eta igogailua. 140.000€.
- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, komun 2 eta egongela handia. Trastelekua eta garajea.
- F.J. ZUMARRAGA: 110 m2. 4 logela, egongela, sukaldea despentsarekin eta terraza. 169.000€.
- EZKURDI: Etxebizitza altua. 4 logela, komun 2 eta egongela. Ganbara. Garajea. Eguzkitsua.
- DURANGO: Logela 2, sukaldea office-arekin eta egongela. 138.000€.
- TABIRA. Apartamentua. Erdi berria. Sukaldea eta komuna jantziak. Ganbara. 160.000€.
- TABIRA: 3 logela eta komun 2. Lehen mailako materialak. Etxe osoak kanpora ematen du.
- IURRETA. Uralde: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Leho berriak. Igogailua. Trastelekua. 130.000€.
- BERRIZ. ZENGOTITABENGOA: 120 m2. 4 logela eta komun 2. Terraza 2. Ganbara. Eguzkitsua. 216.000€.
- IZURZA: Logela 2, komuna eta egongela. Ganbara. Berriztua. 114.500€.
- TXALETA: ABADIÑO. 300 m2. Lorategiarekin. 510.000€.
- MALLABIA: Baserria alokairuan. 1.300€.
- GARAI: Baserria alokairuan. 1.000€.

www.inmoetxetxo.com

ZERGATIK UKO EGIN CITROËN ESPERIENTZIARI?

ZURE IBILGAILUA AZTERTZEKO 12 ARRAZOI DITUZU

MARKA GUZTIETARAKO BALIOZKOA

**ETA DEN-DENA DOHAINIK.**

DOAKO AZTERKETA OINARRIZKO 12 SEGURTASUN OSAGAIETAN:

EGOERA:

1. PNEUMATIKOAK
2. IHES-HODIAN ETA FINKAPENETAN
3. HAIZETAKO-GARBIGAILUAK
4. TRANSMISIO HAUSPOA
5. DIREKZIO-HAUSPOA

LIKIDO MAILEN EGIATZAPENA:

6. DIREKZIOA
7. BALAZTAK EDO LHM EDO LDS
8. HOZGARRIA
9. MOTORRAREN OLIO-MAILA

ESTANKOTASUNA:

10. MOTELGAILUA
11. MOTORRA
12. ABIADURA-KAXA

GAINERA

%30^{EKO}
DESKONTUA

**OLIOA ETA IRAGAZKIETAN,
BALAZTA-PASTILLAK, BALAZTA-DISKOAK,
MOTELGAILUAK ETA IHES-HODIAN.**

Deskontua ordezeko piezetarako baino ez da (eskulana ez dago barne).

%10^{EKO} +
DESKONTUAREKIN ESKULANEAN

2014/07/01tik 2014/09/30ra

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

**TABIRA AUTOMOCIÓN, S.A. CITROËN ETXEKO ZERBITZU OFIZIALA**Padureta 1 industrialdea - 48215 IURRETA tel.: 946 811 108 tabira@tabira.redcitroen.com <http://redoficial.citroen.es/iurreta>

AGENDA

ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Uztailearen 4an,
Zaldibarko jaietan

Governors

En Tol Sarmiento Arabako Errioxako taldeak zabalduko du gaurko Zaldibarko jaietako kontzertua, ska doinu dantzagarriak eskainita. Ondoren, Governors taldeko musikari arrasatearrak ariko dira. 'Morphinapolis' izenburuagaz kaleratu duten euren azken diskoko kantak zuzenean aurkeztuko dituzte.

Antzerkia

:: DURANGO

Uztailearen 5ean,
20:00etan, **Pez Limbo**
Teatro taldearen
'Lana', musika eskolako
parkean. Uda Kalean Bizi.

Erakusketa

:: ZALDIBAR

Uztailearen 12ra arte,
Hiri Antolamendurako
Plan Orokorra,
udaletxean.

Musika

:: DURANGO

Uztailearen 4an,
20:00etan, **Banda La Co-**
lonia, Ezkurdin. Uda
Kalean Bizi jaialdia.

Uztailearen 10ean,
20:00etan, **Yacambú sei-**
kotea, Ibaizabal parkean.
Uda Kalean Bizi jaialdia.

:: ELORRIO

Uztailearen 4an,
22:30etan, **Carmen Souza**,
Lariz jauregian.

Uztailearen 5ean,
22:30etan, **Hasier Oleaga**
Quintet, Lariz jauregian.

Uztailearen 11n,
22:30etan, **Habib Koité**,
Tola jauregian.

Dantza

:: ELORRIO

Uztailearen 6an,
20:00etan,
Dantza garaikidea,
Lariz jauregian.
Musikaire jaialdia.

Jaiak

:: ZALDIBAR

Uztailearen 4an, goiz eta
arratsaldez, **umeentzako**
parkea, eskolan.
17:00etatik 19:00etara,
jinkana. 17:30etik
20:00etara, **eskulanen**
erakusketa, jubilatuen
etxean. 19:00etan, **kalejira**
elektrotxaragagaz,
txosnetan hasita.
23:00etan, **En Tol**
Sarmiento + Governors
kontzertuan. 03:00etan,
kulero eta galtzontzillo
lasterketa, txosnagunean.

Uztailearen 5ean, 11:00eta-
tik 13:00etara, **ume eta**
nagusientzako arku-ti-
roa, taldearen galerian.
13:00etan, **tortilla txapel-**
keta, eskolan. 16:00etatik
19:00etara, **3x3 saski-**
baloi partidua, eskolan.
19:30etan, **afari-merienda**
Olea kalean. 18:00etan,
elkarteen arteko IX.
Olinpiadak, Euskal Herria
kalean. 19:30etan, **mojito**
poteoa. 23:00etan, **Erro-**
meria Trikiogaz. **Atse-**
denaldian, **berdintasuna-**
ren aldeko mapping-a.

Uztailearen 6an,
10:30ean, **eskolarte-**
ko txirrindulari proba.
11:00etan, **kalejira Eus-**
kal Herriko Trikitilari
Gazteen Txapelketako
txapeldunekin. 11:30ean,
kalejira eta Senegalgo
dantzak MLOMP elkar-
tearen eskutik. 12:00etan,
euskal dantzak, Zaldua
plazan. 17:00etan, **umeen-**
tzako entzierrua, Euskal
Herria kalean. 17:30etik
20:00etara, **eskulanen**
erakusketa, jubilatuen
etxearen azpiko solairuan.
18:00etan, **bertso saioa**
balkoitik balkoira, Zaldua
plazan. 22:00etan, **jaieta-**
ko argazkien emanaldia.
23:00etan, **su artifizia-**
lak, Autonomia kalean.

Uztailearen 2an,
07:00etan, **mendi ibilera**
neurtua, Zaldua plazan.
16:30ean, **jubenil maila-**
ko Bizkaiko Txirrindula-
ri Itzuliko etapa: Zaldi-
bar-Zaldibar. 18:00etan,
XXXI. Argazki Rally: sari
banaketa, liburutegi zaha-
rrean.

Uztailearen 13an,
12:00etan, **euskal dan-**
tzak, San Martinen.

UZTAILEKO AGENDA

4 AMATZAKO JAI BATZORDEA SAN MARTIN EGUNA
11:00 Meza, ostean luntxa.

5 AMATZAKO JAI BATZORDEA MOZORRO EGUNA
19:30 Trikitilariekin kalejira.
20:30 Tortilla txapelketa (aurkezpena).
21:00 Txapelketako tortillekin afaria.
Ondoren, bertsolariak; ostean, erromeria.

6 AMATZAKO JAI BATZORDEA
10:30 Trikitilariekin kalejira.
11:00 Meza.
12:00 Amataz auzoko dantzariak. Ondoren, luntxa.
15:00 Herri bazkaria. Ostean, karta lehiaketa, igel txapelketa,
umeentzako jolasak.

10 ARRIANDIN SAN KRISTOBAL EGUNA
AZKORRAKO BASELIZAN
19:00 Meza santua. Jarraian, sardinak, gozokiak eta edariak
banatuko dira.

16 ODOL EMATEA - TXONPOLO ELKARTEA
16:00 - 21:00 Odol ematea.

17 IURRETAKO UDALA
9:00 Iurretako Kale Azoka.

18 ARRIANDIKO JAI BATZORDEA SANTA MAÑA EGUNA
11:30 Meza. Jarraian, tortillak, gozokiak, karramarroak eta
edariak banatuko dira guztientzat.
Santa Mañako XXXVII. Tortilla txapelketa.
*Bikoteak 10euro parte hartzeko.
Tortillak egiteko osagaiak eta ikatza Jai Batzordeak jarriko ditu.
Santa Mañako XXX. Igel Txapelketa.
*Partaide bakoitzak 3 euro parte hartzeko.

AMEZKETAKO ESKOLAN

18:00 Meza. Santa Mañako XLVI. Briska txapelketa.
* Bikoteak 6 parte hartzeko.
18:30 Umeentzako jolasak.
20:30 Erromeria.
21:00 Aferri herrikoa. Afalostean erromeriak jarraituko du.

GARAJE PARTZELEN SALMENTA

Undatorre kalea, 6
DURANGO

SALMENTA

PARTZELA BAKARRA (24 m²) | **PARTZELA BIKOITZA (48 m²)**
13.000 euro + %21eko BEZa (2.730€) | 16.000 euro + %21eko BEZa (3.360€)
15.730 euro | **19.360 euro**

ALOKAIRUA (EROSTEKO AUKERAREKIN*)

PARTZELA BAKARRA (24 m²) | **PARTZELA BIKOITZA (48 m²)**
40 euro + %21eko BEZa (8,4€) | 60 euro + %21eko BEZa (12,6€)
48,4 euro | **72,6 euro**

* %50eko deskontua ezarriko zaio partzela erosi
arte ordaindutako kuoten balioari.

undatorre6@gmail.com
607 422 590



:: DURANGO | ZUGAZA

Bajo la misma estrella

Zuzendaria: Josh Boone

- barikua 4: 19:30/22:00
- zapatua 5: 19:30/22:30
- domeka 6: 18:30/21:00
- astelehena 7: 18:30/21:00
- martitzena 8: 20:00

Campanilla. Hadas y piratas

Zuzendaria: Peggy Holmes

- zapatua 5: 17:00
- domeka 6: 16:45

2. ARETOA

1.000 maneras de morder el polvo

Zuzendaria: Seth MacFarlane

- barikua 4: 19:30/22:00
- zapatua 5: 19:30/22:30
- domeka 6: 18:30/21:00
- astelehena 7: 18:30/21:00
- martitzena 8: 20:00

Bajo la misma estrella

- zapatua 5: 17:00

:: ZORNOTZA

Mi otro yo

Zuzendaria: Isabel Coixet

- barikua 4: 20:15
- zapatua 5: 19:30/22:30
- domeka 6: 20:00
- astelehena 7: 20:15

Mil maneras de morder el polvo

Zuzendaria: Seth MacFarlane

- barikua 11: 20:15

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguziteneko 14:00ak arteko epea



> 27 mosu potolo mutil katxarro honentzat bere neskatzen partez! Parrapeko kondie!



> Gaur **Arhanek**, etxeko txikiak, urtetxo bat ein dau. Zorionak eta mosu potolo bat, laztana.



> Zorionak **Iraide!** Etxeko printzesak uztailaren 7an urtetxo bat beteko dau. Segidu hain irrifarretxu!



> Uztailaren 1ean gure kirolariak 6 urte egingo ditu, ondo pasa eta mosu handi bat etxekoen partez.



> "Nere urtebetetzean, ez hondartzara, ez landara. Udalaizera joan eta hamarretakoa egingo dut ardoagaz eta txuletagaz". Zorionak Endika denon partez!



> Gure etxeko tximistak bi urtetxo bete dauz ekainaren 30ean. Zorionak eta musu bat Izar, ama eta aitaren partez!



> Zorionak **Peio**, uztailaren 4an zure lehen urtea betetzeagatik! Jarraitxu beti bezain alai eta sinpatiko ixeten. Mosu handi bat familia osoaren partez!



> Zorionak **Alaitz** zure 38. urteurrenean. Muxu handi bat.



> **Anek** uztailaren 3an sei urte egin dauz. Zorionak eta moxu potolo bat zure ahizpa Aiala eta familiaren partez!



> Domekan **Iratik** 5 urte bete zituen. Zorionak eta patxo potolo bat familiakoen partez.



> Zorionak **Helene** eta **Oier!** Uztailaren 6an eta 11n, 4 eta 11 urte beteko dituzte. Muxu asko eta besarkada handi bat, Leireren eta familia osoaren partez!



> Zapatu honetako ezkontza ospakizun bat baino gehiago dalako, Zorionak bikote! Elorrixoko lagunak.



> Zorionak gure umetxuei! Oin dala 2 urte zuek ezagutu baino lehen amateko ezagutu zuten elkar, eta familia ederra osatu dugu. Eskerrik asko 2 urte hauetan bizi izandakoagatik... Oraindik gauza asko ditugu partekatzeko!

Jose Antonio Agirre, 4
946 200 869
Avda. Montevideo, 1
946 204 383



> Zorionak **June (551 zk.)!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu. Iurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

> BOTIKAK

BARIKUA, 4 - 09:00-09:00
• **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
• **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
ZAPATUA, 5 - 09:00-09:00
• **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
• **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza)
09:00-13:30
• **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
• **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
• **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
• **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
• **Melero, Rosa Mari** (San Pedro 31 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Jaio-Olabarrieta** (Errekakale 6 - Elorrio)
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
DOMEKA, 6 - 09:00-09:00
• **De Diego** (Intxaurrondo 22 - Durango)
• **Guarrochena, Lide** (Bide Zahar 14 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis

Urrengoetxea 5 - Zornotza)
ASTELEHENA, 7 - 09:00-09:00
• **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
MARTITZENA, 8 - 09:00-09:00
• **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
• **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
EGUAZTENA, 9 - 09:00-09:00
• **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
• **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)
EGUENA, 10 - 09:00-09:00
• **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
• **Goiria, Mari Carmen** (Sabino Arana 6 - Zornotza)
09:00-22:00
• **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)
• **Sarasketa, Diego** (Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza)

> TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria **94 681 09 49**
Osakidetza **94 600 72 00**
Ertzaintza **94 466 93 00**

> GARRAIOAK

Euskotren **902 54 32 10**
Bizkaibus **94 448 40 80**
Pesa **902 10 12 10**
Continental Auto **945 286 466**

> TAXIAK

Abadiño **94 681 44 70**
Matiena **606 459 988**
Durango Geltokia **94 681 10 01**
Elorrio Geltokia **94 682 00 40**
J.L. Uriarte **670 402 002**
I. Estebez **670 678 273**
M. Galeano **670 409 330**
Iurreta **94 620 15 65**
Taxi auzunea **688 618 690**
Berrizko auzo taxia **620 022 800**

> UDALAK

Abadiño **94 621 55 30**
Atxondo **94 682 10 09**
Berriz **94 682 45 84**
Durango **94603 00 00**
Elorrio **94 658 27 12**
Garai **94 681 63 93**
Iurreta **94 620 12 00**
Izurtza **94 681 35 48**
Mallabia **943 17 14 61**
Mañaria **94 681 89 98**
Otxandio **945 45 00 20**
Zaldibar **94 682 70 16**

> UDALTZAINGOA

Abadiño **94 621 55 33**
Berriz **94 682 40 36**
Durango **94 603 00 00**
Elorrio **94 682 02 18**
Iurreta **94 620 08 88**

> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA



Abadiño (Traña-Matiena)
Eguaztenetan
10:00etatik aurrera
Durango
Zapatu goizetan
Zornotza
Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

Letxuga.....**0,80 euro**
Letxuga haritz hostoa**1 euro**
Azelga**2 euro/kg**
Espinaka txorta**1,20 txorta**
Berakatz freskoa**1,50 txorta**
Ilarrak**6 euro/kg**
Tomate kontserba...**3,90 euro/potea**
Arrautzak.....**3,80 euro/dz**
Idiazabal gazta.....**17 euro/kg**
Gari integraleko ogia**3,30 euro**

13° **26°** ZAPATUA



14° **23°** DOMEKA



12° **18°** ASTELEHENA



8° **21°** MARTITZENA



“Gaztetan nagusiekin dantzan egitea gauza handia izaten zen”

Berrizko Iremiñe dantza taldeak Jose Alberto Narbaiza omendu du elkartearen 45. urteurrenean

> AKUILUA Jone Guenetxea Iremiñek Jose Alberto Narbaizari urte hauetan egindako lana aitortu gura izan dio dantza taldearen 45. urteurrenean. Lokalean dute oraindik urteurren ekitaldirako beste dantza talde batzuei eskatutako materiala. Zurrumbilo handia sortu dute herrian urtemugarako antolatutako ekitaldiek.

Zelan bizi izan zenuen omenaldiaren momentu hori? Sorpresa handia izan zen niretzat. Aurrekoa egiteko eskatu zidaten, eta beroketak egitera sartu nintzen futbol zelaiko aldageletara. Lore sorta bat ikusi nuen, eta “hemen zer edo zer dak”, esan nuen nire artean. Ondoren, lore sorta eta makila eman zizkidaten.

Zenbat dantzari batu zineten?

Mutilen eta nesken hamabina talde batu ginen futbol zelaian. Umeak ere etorri ziren. Oso egun ederra izan zen.

Bandera berria ere egin duzue.

Herriko bandera berritu, baina taldearen bandera egitea pentsatu genuen taldearen izenagaz. Txikitxoagoa egin dugu, gazte txoek ere batu ahal izateko

Noiztik diharduzu Iremiñen?
Taldeak 45 urte egin ditu, eta



nik 43 daramatzat. Hasieran bederatzi mutil eta txistularia hasi ziren. Ezagunak ziren, eta dantzan ikasteko proposatu ziguten. Nire anaia Luzar dantzariaren laguna zen, eta Santa Ageda bezperan kantatzera joaten ziren. Beraiekin joan ginen, eta ondoren dantzan egiteari ekin nion.

Zer garapen izan duzue?

Hasi nintzanean mutilak bakarrik ginen. Handik urtebetera Izarra dantza taldea desegin egin zen, eta hango neskak gurera etorri ziren. Gainera, umeen taldeak ere hasi ziren.

Zenbat dantzari diharduzue?

50 ume inguruk dihardute taldean. Nagusietan, mutilen hiru talde eta nesken beste hiru. Lantzean behin beste talde batzuk ere elkartzen gara.

Berriz herri dantzaria da?

Berriz betidanik izan da dantza zaletasun handikoa. Historiari begiratzen hasiz gero, urte askoan izan ditugu dantzariak.

Talde askotan neska gehiagok dihardute mutilak baino. Zuenen?

Momentu honetan mutil gehiago ditugu. Hala ere, izan genuen neska gehiago zebiltzan sa-soia ere.

Zelan gogoratzen dituzu taldearen hasierako urteak?

14 urte nituen dantzan hasi nintzanean. Nagusiekin dantza egitea gauza handia izaten zen guretzat. Sanmigeletan nagusiekin dantzan egiten hasi ginen. Gaztetan txaleko barik egiten genuen dantzan, eta nagusiekin txalekoa janzten genuen. Donostiako belodromora dantzan egiten joatea, eta horrelako irteerak gustuko genituen.

Anekdotak ugari izango dituzu hainbeste urtean.

Garaiko Aurreku Txapelketa joaten ginen gaztetan. Itzelezko giroa izaten zen. Lehengoz joan ginenean, herri bakoitzak lehia izaten zuen ondoko herriekin. Lehia sana zen, baina. Amaitzen zenean denok elkarrekin joaten ginen pintxoak jatera eta zer edo zer edatera.

Taldeari asko eman diozu, baina dantzak zer eman dizu zuri?

Jende asko ezagutzeko aukera eman dit. Durangaldekoak, Bizkaiko Dantzari Biltzarrekoak, nafarrak, gipuzkoarrak...

Zure etxean dantza gustuko izan beharko dute.

Nire emaztea dantza taldean ezagutu nuen. Nire familia ere dantza taldearen inguruan hazi da. Nire alaba, adibidez, umeen taldeaz arduratzen da.

Dantza taldearen etorkizuna zelan ikusten duzu?

Urteurrenagaz jendeak berotua hartu du. Iraultza izan dela ematen du. Baina hori pasatu egingo da, eta lehengora bueltatuko dela uste dut.

LAUHORTZA

JOSE LUIS LIZUNDIA

Euskaltzaina



Bitor Kapanagari

Omenaldia egingo zaio hilaren 12an, Otxandion. Hori dela-eta, 60ko hamarkadako ekintzaileetarik bati soslai labur bat eskaini gura nioke. Ekintzaile diot, zeren eta ezagun euskalgintzagatik bada ere, arlo askotan aritu zen. Kooperatibagintzatik hasita, Otxandioko Talleres Ochandiano eta Durangaldeko DIBA aipatuko nituzke, bigarren hori, Gerediaga Elkarteko zuzendaritzako kide zirela, Luis Gorroño eta bera izan zirelako aitzindari; nekazaritza alorrean Iturriaga&Dañobeitia fundazioan nire aurreko idazkari izan zen, besteak beste, Abornikanon Enbeitarrek lantzeko errota eta lursaila erosi zuelarik erakunde horrek.

Kulturan, ez bakarrik euskalgintzan, ia hasieratik sartu zen Gerediaga Elkartean, zeren eta hamarkada horretan elkarte honen hainbeste ekintza sortu eta bideratu baitzuen.

Bitorrek hainbat arlotan jardun zuen; adibidez, San Blas eguneko feria famatua eraberritzen 1967an, eta Baserri saileko gainontzeko iniziatibetan; Zaldibarren, urte berean egin ziren antzerki jardunaldietan, Inaki Beobide eta Ricard Salvat zirelarik ponente nagusi, han zen gure Bitor ere; gauza bera Mañarian antolatutako lehengo Euskal Herriko Ardi Txapelketan ere. Gainontzekoetan ere, ez zen urrun ibili.

Euskalgintzakoetan, preseski, 1965eko I Euskal Liburu eta Disko Azokan hurbildu zen Andra Mariko elizpera, eta, bigarrenetik aurrera, urterik zailenetan, lankide izan zen. 1968ko ekaineko azken hiru egunetan, han zen, Ermuan, gerraosteko Hego Euskal Herriko lehen Euskal Idazleen Biltzarrean; gero, handik hiru hilabetera, Arantzazun egingo zen Euskaltzaindiaren euskara batuari buruzko Biltzar sonatuan; Kirikiñoren mendeurrenean ere Bitor Mañarian eta abarretan.

lea artibai
Ikastetxea
Etorkizuna erakiz

www.learitik.com
info@learitik.com
94 616 9002

BATXILERGOA

LANBIDE HEZIKETA

Erdi maila

- Beroa sortzeko instalazioak (Iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantentimedu elektromekanikoa

Goi maila

- Administrazioa eta finantzak
- Telekomunikazioak eta informatika sistemak
- Automatizazioa eta robotika industriala
- Fabrikazio mekanikoko produksioaren programazioa
- Mekatronika industriala

Arratsaldez:

- Efizientzia energetikoa

MATRIKULA
Uztailaren 9tik 16ra

EMAN IZENA!

Guk!

Lea Artibai

#guklearitbai

inera..



EUSKO LABEL OTZARAK
Hazi Fundazioaren eskutik Eusko Labeldun produktuekin osatutako bi otzara zotz egingo ditugu.



ANBOTOREN
LAGUN GUZTIEN
ARTEAN ZOZKETA
EGINGO DUGU



OVIEDORA BIDAIA
Las Caldas de Villa Termal bainuetxean bi lagunentzako asteburua zotz egingo dugu Eroski Bidaiak agentziaren eskutik.

Lagun eginda, lehiaketan parte hartu eta babes ekonomikoa emateko aukera

Urtean hogeituroren truke, egin zaitez 'Anbotoren lagun'-en taldeko kide

Anbotoren lagunek babes ekonomikoa ematen diote ANBOTOREN proiektuari. Taldea handituguran, Anbotoren lagun kanpaina jarri dute martxan. Hiru aukera daude talde horretako kide izateko: anboto@anboto.org helbidera mezua bidali, 946 816 558 telefono zenbakira deitu, edo orrialdearen eskuinaldean dagoen kupoia Bixente Kapanaga, 9, 48215 Iurreta helbidera bi-

dali. Anboto.org webgunean ere Anbotoren lagun kanpainaren berri izateko aukera dago.

Lehiaketa interesgarriak
Anbotoren lagun kanpaina-gaz bat egin dute Hazi Fundazioak eta Eroski Bidaiak agentziak. Horrela, Anbotoren lagun artean lehiaketak jarri dituzte martxan.

Adibidez, Eusko Label pro-

duktuekin betetako otzara bat zotz egingo dute Anbotoren lagun guztien artean.

Era berean, Eroski Bidaiak agentziak eskaintako asteburu-pasaren lehiaketan ere parte hartuko dute. Irailean egingo dituzte bi lehiaketak, beraz, ordura arteko egunetan lagun egiteko aukera dagoela jakitera eman dute ANBOTOk ardura-dunek.

anboto lagunak

Urtean 20 euroko diru-laguntza emateko prest nago!

Lagun egiteko 3 aukera dituzu



anboto@anboto.org



946 816 558



Izen-deiturak

Helbidea / Herria

Posta kodea

Telefonoa

Anboto komunikabideak - DHK
Bixente Kapanaga, 9 · 48215 IURRETA

 **anboto**